# Museoak, Bakea eta Giza Eskubideen Bilduma III

## Bakeraikileak

## Constructor@s de Paz




GernikakoBakearenMuseoaFundazioa
FundaciónMuseoDeLaPazDeGernika

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GernikakoBakearenMuseoaFundazioa
FundaciónMuseoDeLaPazDeGernika

# Bakeraikileak • Constructor@s de Paz

**Museoak, Bakea eta Giza Eskubideen Bilduma III**

**Editoreak / Editores:**

GernikakoBakearenMuseoaFundazioa
FundaciónMuseoDeLaPazDeGernika

*Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa*
*Fundación Museo de la Paz de Gernika*
Foru Plaza 1, 48300 Gernika-Lumo,
Bizkaia, EUSKADI
Tel +34 94 6270213
museoa@gernika-lumo.net
www.museodelapaz.org

**Kordinatzaileak / Coordinadoras:**
Iratxe Momoitio Astorkia
(Museo de la Paz de Gernika)
Idoia Orbe Narbaiza
(Departamento educativo -
Museo de la Paz de Gernika)

CC BY NC SA

**Jolasaren egilea / Autor del juego:**
Alex Carracosa

**Erakunde honen dirulaguntzari esker /**
**Gracias a la subvención de:**

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**ISBN:** 978-84-936190-9
**D.L.:** BI-1039-2016

**Diseinua / Diseño:**
Alex Carracosa

**Imprimaketa / Impresión:**

Estudios Durero

www.estudiosdurero.com
durero@estudiosdurero.com

**Eskerrak / Agradecimientos:**
*Angeles Arrien Foundation*
Mundu hobeago bat lortzeko bidean, bake kultura eta Giza Eskubideen alde, lan egiten duten pertsona guztiei.
A todas las personas que, en diferentes ámbitos, trabajan por la Cultura de la paz y los DDHH con el propósito de construir un mundo mejor.

*“Ez dago bakerako biderik, bakea bera da bidea”* **Gandhi**

**Gernikako Bakearen Museoaren helburua bake-kulturaren oinarrizko ideiak kontserbatu, erakutsi, zabaldu, ikertu eta bisitariak ideiotan heztea da.**

Azken urteetan lantzen ari garen zeregin honek gure bisitarien artean gai honi buruzko ezjakintasun orokorra dagoela bistaratu digu. Bakea, giza eskubideak eta mundu hobe baten alde buru-belarri lanean ari diren pertsona eta elkarteak identifikatzea zaila egiten zaigu. Izan ere, asko diren arren, edo ez ditugu ezagutzen edo ez ditugu aintzakotzat hartzen.

Galdera hau egingo baligute: Bakearen Kultura hedatzen, Giza Eskubideak errespetatzen eta gure planeta zaintzen eta babesten aritu diten edo aritzen diren 10 pertsonen izenak emateko gai al zara? Zein izango litzateke gure erantzuna? Ziurrenik zail egingo litzaiguke eta askoz errazagoa izango litzateke indarkeria edo biolentziaren kulturarekin lotutako pertsonak aipatzea. Honetaz inoiz hausnartu al duzu?

Gabezia hau kontutan hartu dugu eta Gernikako Bakearen Museoak katalogo hau sortzea erabaki du. Katalogoa osotzeko, erakusketa, mahai jokoa eta tailerra sortu ditugu.

Katalogo honetan aurkituko dituzun 32 bake ereduak gure planetan bakea eraikitzen duten milioika pertsonen artetik hautatuko lagin txikitxo bat baino ez dira. Guztiek daramaten edo bizi izan duten bizimoduan/garaian mundu baketsuagoa, bidezkoagoa eta giza eskubideak errespetatzen dituena eraikitzen saiatu dira.

Aukeratutako pertsona guztiek **lau arlo** nagusitan ekiten dute:
- **Bestea**, banakako eskubideei buruzkoa, pertsonarteko harremanak, bake zuzena
- **Gizartea**, eskubide zibilei buruzkoa edo bake estrukturala
- **Gizadia**, giza eskubide edo gizadiari buruzkoa, bake kultura
- **Amalurra**, Lurraren eskubideei buruzkoa, ‘gaia bakea’ edo ekosistemikoa/natura

Pertsona hauek bakea prozesu aktiboa, dinamikoa, parte-hartzailea eta sortzailea dela erakusten digute eta mundu bidezkoagoa, berdintasunean oinarritutakoa eta guztien begirunea gordetzen duen gizateriaren alde jokatu behar dugula irakasten digute.

***Iratxe Momoitio  Astorkia – Idoia Orbe Narbaiza***
Kordinatzaileak

*“No hay caminos para la paz, la paz es el camino”* **Gandhi**

***El Museo de la Paz de Gernika tiene como misión fundacional la de conservar, exponer difundir, investigar y educar al visitante en las ideas básicas de la Cultura de la Paz.***

*Esta labor, realizada a lo largo de los últimos años, nos ha mostrado que hay un desconocimiento general en torno a dicha temática entre nuestros visitantes. Nos cuesta identificar a personas y organizaciones que trabajan con ahínco por la paz, los DDHH y un mundo mejor, ya que aunque existen muchas, o no las conocemos o nos las ponemos en su justo valor.*

*Si nos preguntaran ¿serías capaz de nombrar a 10 personas que han dedicado y/o dedican parte de su vida a la Cultura de la Paz, el respeto de los DDHH y a la protección y cuidado de nuestro planeta? ¿cuál sería nuestra respuesta? Seguramente nos costaría mucho y nos sería mucho más sencillo nombrar muchas más personas vinculadas con la cultura de la violencia. ¿Te has planteado por qué?*

*Teniendo en cuenta esta carencia, el Museo de la Paz de Gernika ha decidido crear este catálogo, que se complementa con una exposición, un juego de mesa y un taller educativo.*

*Los 32 referentes de paz de este catálogo son sólo una pequeña muestra de los millones de personas constructores de paz en nuestro planeta que hacen una apuesta vital por construir un mundo en paz, más justo y respetuoso con los DDHH.*

*Todas las personas seleccionadas realizan su labor en **cuatro ámbitos**:*
***- El prójimo**, relativo a los derechos individuales, las relaciones interpersonales y la paz directa*
***- La sociedad**, relativo a los derechos civiles o a la paz estructural*
***- La humanidad**, relativo a los DDHH universales y a la cultura de la paz*
***- La madre tierra**, relativo a los derechos de la tierra, paz “gaia” o ecosistémica*

*Estas personas nos demuestran que la paz es un proceso activo, dinámico, participativo y creativo por el que debemos apostar todas las personas que queremos construir un mundo más justo, igualitario y respetuoso con todo el mundo.*

**Iratxe Momoitio Astorkia – Idoia Orbe Narbaiza**
*Coordinadoras*




bestea • prójim@

Bartzelonan jaio zen (Katalunia), 1920an, eta Anantapurren hil (India), 2009an. Borondatezko lankidea izan zen, eta Indiako Andhra Pradesh estatuko marjinatuen eta txiroen bizi-kalitatea hobetzeko lanetan aritu zen bizitza osoan. Errepublikanoen bandoan borrokatu zen Espainiako Gerra Zibilean, eta, Kataluniak porrot egin ostean, Argelès-sur-Mer (Frantzia) eta Betanzos (Galizia) herrietako kontzentrazio-esparruetara eraman zuten. 1944an Jesusen Lagundiarekin bat egin zuen, eta 1952an Indiara bidali zuten. Bere misioan, nekazari indiarren alde egin zuen, eta susmo txarrak piztu zituen agintarien, ekonomialarien eta politikarien artean. 1958an Rural Development Trust (RDT, Landa Garatzeko Funtsa) sortu zuen, ahalik eta pertsona gehienak pobreziatik ateratzeko garapen iraunkorreko programen bidez (kontserbazio-nekazaritza, mikro-kredituak, ur-hornidura, osasun-arreta eta hezkuntza unibertsala). **1969an**, Jesusen Lagundia utzi ostean, **Vicente Ferrer Fundazioa sortu zuen, batez ere dalit direlakoei edo kastatik kanpokoei laguntzeko: fundazioaren helburua da ahal bezainbeste pertsona ateratzea pobreziatik, garapen iraunkorreko programen bidez. Hainbat aurrerabide lortu dituzte: besteak beste, putzuak eta ureztatzeko sistema antolatuak eraiki dituzte, zenbait ospitale, hiesean espezializaturiko klinika bat, familia-plangintzarako zentro bat, 14 landa-klinika, 1.700 eskola eta 30.000 etxe inguru. Horrez gain, 3 milioi zuhaitz baino gehiago landatu dituzte. Hala, fundazioaren lanari esker, 2,5 milioi pertsonaren baino gehiagoren bizi-kalitateak hobera egin du.**

*Nace en Barcelona (Cataluña), en 1920 y muere en Anantapur (India), en 2009. Cooperante que dedica su vida a la mejora de la calidad de vida de las personas marginadas y pobres del estado indio de Andhra Pradesh. Lucha en el bando republicano durante la Guerra Civil española y tras la derrota en Cataluña es internado en los campos de Argelès-sur-Mer (Francia) y Betanzos (Galicia). En 1944 ingresa en la Compañía de Jesús y en 1952 es destinado a la India. En su misión se implica a favor de los campesinos indios, y despierta recelo entre las clases dirigentes, económicas y políticas. En 1958 crea el Rural Development Trust (RDT, Fondo de Desarrollo Rural) con el objetivo de sacar de la pobreza al mayor número posible de personas mediante programas de desarrollo sostenible —agricultura de conservación, microcréditos, suministro de agua, asistencia sanitaria y educación universal—. Y* ***en 1969****, tras abandonar la Compañía de Jesús,* ***constituye la Fundación Vicente Ferrer, destinada principalmente a los dalit o descastados y cuyo objetivo es sacar de la pobreza al mayor número posible de personas mediante programas de desarrollo sostenible. Entre sus logros cabe señalar la construcción de pozos y sistemas de riego organizados, varios hospitales, una clínica especializada en SIDA, un centro de planificación familiar, 14 clínicas rurales, 1.700 escuelas, unas 30.000 casas y la plantación de más de 3 millones de árboles. El trabajo de la fundación ha mejorado la vida de más de 2,5 millones de personas.***



http://www.martasarramian.com/blog/2012/02/06/a-vicente/






bestea • prójim@

Buffalon jaio zen (New York estatua, AEB), 1949an. Pennsylvania (AEB) eta Melbourne (Australia) hirien artean dabilen sortzailea da, eta ideal humanistak artera eramaten dihardu, arte komunitarioko tokiko proiektu eta ekitaldiak antolatuz, eta Giza Eskubideen alde lan egiten duten artisten nazioarteko sareak sortuz eta horietan parte hartuz. 1987an, Melbourneko Hoddle Street kalean izandako tiroketari eta 7 pertsonaren erailketari erantzuteko, "The Peace Project" sortu zuen, eta Indarkeriaren Prebentziorako Australiako Saria eman zioten. 1994an, *Violence to Nonviolence: Individual Perspectives, Communal Voices* antologia argitaratu zuen. 2000. urtean, Arte Humanistaren Artxiboa eratu zuen, sortzaile intelektualen eta artisten lanak bilduta (besteak beste, Günter Grass-enak, Vaclav Havel-enak eta Peter Schumann-enak), eta handik hiru urtera bere bigarren antologia kaleratu zuen: *Art and Humanist Ideals*. Era berean, beste sare batzuetan ere esku hartu zuen; esaterako, Hegoafrikako Art for Humanity elkartean. Elkarte horrek antolatu zuen Dialogue Among Civilizations erakusketa, 2010eko Futboleko Munduko Kopa jokatzen ari zela. Eta, 90eko hamarkadaren amaieratik eta bereziki 2000ko lehenengo urteetan, Gernika-Lumo herriarekin konprometitu zen. Hango instalazio publikoetako bat **Plaza of Fire and Light** da, **2001ekoa: euskal sinbolo astrala da, herritar guztiek pizturiko zuziekin egindako espiral bat, 1937ko apirilaren 26an Gernikan izan zen bonbardaketako biktimen eta bizirik atera zirenen oroimenezkoa**. 2005 eta 2007 artean, nazioz gaindiko Humanist Art, Symbolic Sites erakusketa koordinatu zuen, zeinak hainbat gatazka-lekutako artistak biltzen baititu. 2010ean, GRAIN (Growing Rural Art in Nathalia) zentroa sortu zuen, atzerriko eta bertako sortzaileek, eta sortzaile indigenek (hala berriek nola finkatuek) egindako erakusketak, performanceak eta tailerrak antolatzeko. Lan horrek guztiak mereziarazten dio duela gutxi irabazi duen Courage of Conscience saria (The Peace Abbey, Boston).

*Nace en Buffalo (Estado de Nueva York, EE.UU.) en 1949. Creador itinerante entre Pennsylvania (EE.UU) y Melbourne (Australia) que trata de llevar los ideales humanistas al Arte mediante la implementación de proyectos e intervenciones locales de arte comunitario y mediante la creación y participación de redes internacionales de artistas que trabajan por los Derechos Humanos. En 1987, en respuesta al tiroteo masivo y asesinato de 7 personas en Hoddle Street (Melboune), crea "The Peace Project", instalación galardonada con el Premio Australiano de Prevención de la Violencia. En 1994 publica la antología* Violence to Nonviolence: Individual Perspectives, Communal Voices*. En el 2000 funda el Archivo de Arte Humanista reuniendo trabajos de creadores —intelectuales y artistas— como Günter Grass, Vaclav Havel o Peter Schumann y tres años después publica su segunda antología* Art and Humanist Ideals*. Se implica asimismo en otras redes como la sudafricana Art for Humanity, organizadora de la muestra Dialogue Among Civilizations coincidiendo con la celebración de la Copa del Mundo de Fútbol de 2010. Y desde finales de los 90 y especialmente durante la primera década del 2000 compromete su trabajo con la villa vasca de Gernika-Lumo, una de cuyas instalaciones públicas es **Plaza of Fire and Light, de 2001: el símbolo astral vasco de la espiral hecha de velas encendidas por toda la ciudadanía, en memoria de las víctimas y supervivientes del bombardeo de Gernika el 26 de abril de 1937**. Entre los años 2005 y 2007 coordina la muestra transnacional Humanist Art, Symbolic Sites que reúne a artistas de diferentes lugares en conflicto. Y en 2010 funda el centro G.R.A.I.N. (Growing Rural Art in Nathalia) para la celebración de exposiciones, performances y talleres a cargo de creadores foráneos, locales e indígenas emergentes y establecidos. Todo este trabajo le hace merecedor recientemente del Premio Courage of Conscience (The Peace Abbey, Boston).*

Akhtar Hameed Khan



bestea • prójim@

Agran jaio zen (India britainiarra, Uttar Pradesh estatua), 1914an, eta Indianapolisen hil (AEB), 1999an. Pakistandarra bada ere, urdua da haren hizkuntza (Pakistango hizkuntza nazionala da, hindiaren erro bera duena, baina komunitate musulmanak du hartua, eta pertsiar alfabetoan idazten da). Garapenaren aldeko aktibista eta zientzialari soziala izan zen, eta ezagun egin zen mikro-kredituaren eta mikro-finantzen inguruko egitasmo aitzindariengatik. Mikro-kredituak ekonomikoki txiroak diren pertsonei ematen zaizkie, ezin badute ohiko banku-krediturik eskatu; mikro-finantzen bidez, bestalde, finantza-zerbitzuak ematen zaizkie (aurrezteko, inbertitzeko edo kredituak jasotzeko) ohiko banku-sistema erabiltzeko mugak dituzten edo erabili ezin dituzten pertsona edo taldeei. Egitasmo horiek garabidean diren herrialdeetako nekazari-kooperatibei eta landa-gaikuntzarako programei laguntzeko sortu ziren. Hala, landa-garapen parte-hartzailea sustatu zuen Pakistanen eta Bangladeshen, eta azken herrialde horretan egin zuen ekarpenik handiena: Comilla Eredua (1959). 80ko hamarkadaren amaiera aldera, Orangi proiektu pilotua abiatu zuen, hau da, kostu gutxiko saneamendu-, osasun-, etxebizitza- eta mikrofinantza-instalazioak ezartzeko gizarte-berrikuntzako egitasmoa. Ekintza horiek guztiak direla eta, izen handia du hala nazioartean nola Pakistanen bertan. **Zazpi hizkuntza eta dialekto hitz egiten ditu, eta hainbat liburu eta artikulu akademiko idatzi ditu; nabarmentzekoak dira urduz idatzitako poemen bilduma eta bidaien literatura.**

*Nace en Agra (India británica, estado de Uttar Pradesh) en 1914 y muere en Indianápolis (EE.UU.) en 1999. Si bien su identidad es pakistaní, su lengua es el Urdu (lengua nacional de Pakistán, de raíz común al hindi, pero adoptada por la comunidad musulmana y escrita según el alfabeto persa). Activista del desarrollo y científico social, reconocido por sus iniciativas pioneras relativas al microcrédito (pequeños préstamos concedidos a personas económicamente pobres que no pueden solicitar un préstamo bancario tradicional) y a las microfinanzas (prestación de servicios financieros —de ahorro, inversión o crédito— a personas o grupos cuyo acceso a los sistemas bancarios tradicionales es limitado o inexistente). Dichas iniciativas están orientadas a las cooperativas de agricultores y a programas de capacitación rural en los países en desarrollo. Promueve el desarrollo rural participativo en Pakistán y Bangladesh, país éste último donde hace su contribución más importante, el establecimiento del Modelo Comilla (1959). A finales de los 80, inicia el Proyecto Piloto Orangi, una iniciativa de innovación social para la implementación de instalaciones de bajo costo de saneamiento, salud, vivienda y microfinanzas. Estas acciones le conceden reconocimiento internacional y altos honores en Pakistán.* ***Hablante de siete idiomas y dialectos, y escritor de varios libros y numerosos artículos académicos, cabe reseñar la publicación de una colección de poemas y de literatura de viajes en Urdu.***



https://www.flickr.com/photos/94592664@N00/5064325692/?rb=1






1997an jaio zen, Mingoran, Swat ipar-mendebaldeko barrutian, Pakistanen, eta paxtun etniakoa da. BBCk, ikusirik 2003 eta 2009 artean Tehrik-i-Taliban Pakistan (TTP) taldearen erregimen fundamentalista islamiarraren eragina handituz zihoala eta emakumeei bizitza soziala izateko debekua ezarri ziela (eskolara joatekoa barne), 2008ko amaiera aldera proposatu zuen neskato batek blog baten bidez kontatzea bere eguneroko bizimodua. Arriskutsua izanagatik ere, hango irakasle batek, Ziauddin Yousafzaik, Britainia Handiko katearekin adostu zuen bere 11 urteko alaba arituko zela berriemaile. “Gul Makai” izengoitiarekin (herri-ipuin paxtundarretako pertsonaia baten izena da, eta “nabar-lore” esan nahi du, hau da, belar-landare urdin bat), neskatoak bere eguneroko bizitzaren nondik norakoak kontatu zituen blogean, 2009ko urtarriletik martxora bitartean. Blog horretan oinarriturik, New York Timeseko Adam Ellick-ek eta Irfan Asharaf-ek Irfan “Class Dismissed” dokumentala egin zuten. Dokumentalaren eraginez, hedabide ugaritan elkarrizketatu zuten neskatoa, aitorpena eman zioten eta sarietarako izendatu zuten nazioartean zein bere herrialdean. Alabaina, erregimen talibanaren salaketa publiko horrek mehatxuak ekarri zituen, eta, 2012ko urrian, atentatua egin zioten: buruan tiro egin zioten, baina bizirik atera zen, eta haren kasua instantzia gorenetaraino heldu zen. Hori dela bide, **Nazio Batuek dei egin zuten neskatoen kontrako diskriminazioa debeka dadin eta eskolara joaten ez diren 61 milioi haurrek hezkuntza jaso ahal izan dezaten, 2015 bukaerarako.** Erailtzen saiatu zirenetik bi urtera (**2014**ko urrian), **Bakearen Nobel Saria eman zioten**, eta, hala, sari horren irabazle gazteena bihurtu zen. Gaur egun, Britainia Handian dago erbesteratuta.

*Nace en 1997 en Míngora, en el distrito noroccidental de Swat, en Pakistán y pertenece a la etnia pastún. Ante la creciente influencia del régimen fundamentalista islámico del Tehrik-i-Taliban Pakistan (TTP) y su imposición de prohibir la vida social a las mujeres, incluyendo la asistencia de las niñas a la escuela, entre 2003 y 2009, la BBC propone a finales de 2008 que una niña relate su vida cotidiana a través de un blog. A pesar de la peligrosidad, un profesor local, Ziauddin Yousafzai, acuerda con la cadena británica que sea su hija de 11 años la corresponsal. Bajo el seudónimo “Gul Makai” —nombre de un personaje de los cuentos populares pastunes, cuyo significado es “aciano”, una flor herbácea de color azul— la niña relata su día a día desde el blog entre enero y marzo de 2009. El blog inspira la realización de un documental, “Class Dismissed”, por parte de Adam Ellick e Irfan Ashraf, del New York Times. A consecuencia del documental, la joven es entrevistada en numerosos medios y reconocida y nominada, tanto en su propio país como internacionalmente; pero su denuncia pública del régimen talibán le reporta también amenazas que se consuman con un atentado en octubre de 2012. Sobrevive a un disparo en la cabeza y su caso llega hasta las más altas instancias: la joven* ***inspira un llamamiento desde las Naciones Unidas para que se prohíba la discriminación contra las niñas y para que 61 millones de niños que no asisten a la escuela puedan recibir educación para finales de 2015.*** *Dos años después de su intento de asesinato (octubre de* ***2014****) es* ***galardonada con el Nobel de la Paz****, convirtiéndose en la ganadora más joven de este premio. Actualmente vive exiliada en el Reino Unido.*

http://www.upsocl.com/inspiracion/ella-es-malala-yousafzai-la-persona-mas-joven-en-ser-nominada-al-nobel-de-la-paz-sus-palabras-te-dejaran-asombrado/




bestea • prójim@

Kanbodian jaio zen, Mondulkiri probintzian, 1970ean. Giza Eskubideen alde dihardu, batik bat sexu-trafikoa salatzen. Haurra zela, Kanbodiako burdel batean barruratu zuten, eta prostituitzera behartu. 1991n, Phnom Penh hiriburuko mundu marjinaletik ateratzea lortu zuen, aldi baterako Parisera lekualdatu zenean. 1996an, AFESIP (Agir pour les Femmes en Situation Precaire / Ekin Egoera Prekarioan dauden Emakumeen alde) elkartea sortu zuen, eta 1997az geroztik ECPAT (End Child Prostitution And Trafficking / Geldiarazi Haur Prostituzioa eta Adingabeen Trafikoa) erakundeko buru da; erakunde horrek Kanbodian, Thailandian, Vietnamen eta Laosen dihardu, sexu-esklabotasunaren biktima izan diren pertsonak (batez ere, emakumeak eta neskatoak) gizarteratzeko lanetan. 1998an Nazioarteko Lankidetzaren Asturiasko Printzearen Saria eman zioten. **Gero, 1999an, ASEAN (Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Elkartea) elkarteko Emakumeen Elkarteen Konfederazioko buru hautatu zuten.** 2007an, bere izena duen fundazioa sortu zuen, printzipio hau oinarri harturik: “neskatoak ez dira prostituzioan aritzen: prostituitu egiten dituzte”. Handik urtebetera, bere autobiografia plazaratu zuen: *The Road of Lost Innocence*.

*Nace en Camboya, en la Provincia de Mondulkiri, en 1970. Defensora de los Derechos Humanos, cuya acción se focaliza en la denuncia del tráfico sexual. De niña es recluida en un burdel en Camboya y obligada a ejercer la prostitución. En 1991 consigue salir del mundo marginal de Phnom Penh, trasladándose temporalmente a París. En 1996 funda la asociación AFESIP (Agir pour les Femmes en Situation Precaire / Acción por las Mujeres en Situación Precaria) y desde 1997 preside la organización ECPAT (End Child Prostitution And Trafficking / Acabar con la Prostitución Infantil y el Tráfico de Menores) cuya labor, desarrollada en Camboya, Tailandia, Vietnam y Laos, se destina a la reintegración social de las víctimas de la esclavitud sexual, mayoritariamente mujeres y niñas. En 1998 recibe el premio Príncipe de Asturias de Cooperación Internacional.* ***En 1999 es elegida Presidenta de la Confederación de Organizaciones de Mujeres de la ASEAN (Asociación de Naciones del Sudeste Asiático).*** *En 2007 crea la Fundación que lleva su nombre sobre el principio de que “no hay niñas que se dediquen a la prostitución sino niñas prostituidas” y un año después publica su autobiografía* The Road of Lost Innocence *(El silencio de la inocencia).*



http://www.gripmovement.org/en/newsblog/2014/03/1345/



# Elizabeth Eidenbenz

bestea • prójim@

Wilan jaio zen (Suitza), 1913an, eta Zürichen hil (Suitza), 2011n. Irakasle jardun zuen Suitzan eta Danimarkan, eta Gerrako Haur Biktimei Laguntzeko Elkarteko boluntario izan zen. Espainiako Gerra Zibilean errepublikanoen aldean parte hartu zuen, laguntza humanitarioa emateko lanetan. Elna Amaetxea sortu zuen; erakunde horrek, 1939 eta 1944 artean, 600 haur inguru salbatu zituen (400 Espainiako errefuxiatu errepublikanoak, eta 200 Europatik zetozen juduak, nazien inbasiotik ihesi zihoazenak). **2002an, Israelgo Yad Vashem zentroak (holokaustoaren biktimen oroimen-zentro ofiziala) "nazioen arteko pertsona zuzenak" titulua aitortu zion.** Haren beraren hitzetan: "nire nahi handiena da amaetxea bakearen uharte bihurtzea gerraren infernuaren erdian; oxigenozko bonbona bat izan dadila aurrera egiteko, bizitzen jarraitzeko".
Gaur egun, hark sortutako amaetxea museo bihurtu da.

*Nace en Wila (Suiza), en 1913 y fallece en Zurich (Suiza), en 2011. Maestra en Suiza y Dinamarca y voluntaria de la Asociación de Ayuda a los Niños Víctimas de la Guerra. Durante la Guerra Civil española colabora en la zona republicana en labores de ayuda humanitaria. Funda la Maternidad de Elna, institución que entre 1939 y 1944 logra salvar en torno a 600 niños (400 refugiados republicanos españoles y 200 judíos procedentes de Europa que huyen de la invasión nazi).* ***En 2002 es reconocida por el Yad Vashem israelí (el memorial oficial a las víctimas del Holocausto) como una de los "Justos entre las Naciones".*** *En sus propias palabras: «mi mayor satisfacción es que la maternidad se convierta en una isla de paz en medio del infierno de la guerra; en una bombona de oxígeno para tirar hacia delante, para seguir viviendo».*
*Hoy en día su maternidad se ha convertido en un museo.*

http://elpais.com/diario/2011/05/26/necrologicas/1306360801_850215.html




# bestea • prójim@

Agnes Gonxha Bojaxhiu zuen berezko izena, eta jatorri albaniarrekoa zen. 1910ean jaio zen, Uskuben, Kosovoko valierri otomanoko hirian (gaur egungo Skopje-n, Mazedonia), eta bizitzaren zati handiena Indian igaro zuen, 1997an hil zen arte. Erlijioso katolikoa zen, eta Karitateko Misiolariak kongregazioa sortu zuen Kalkutan, 1950ean. 45 urtez baino gehiagoz, laguntza eman zien txiroei, gaixoei, umezurtzei eta hil-hurren zeudenei, eta, aldi berean, bere kongregazioaren hedapena bideratu zuen, Indian lehenik eta beste 133 herrialdetan ondoren. 1952an, Indiako agintariek baimena eman zioten abandonaturiko tenplu hindu bat gaixorik eta hilzorian zeuden txiroentzako etxe bihurtzeko: Nirmal Hriday edo Bihotz Garbiaren Etxea. Han, behartsuek osasun-arreta jasotzen dute, eta, hala badagokie, duintasunez hiltzeko aukera ematen zaie, haien sinesmen-errituak errespetatuz, izan musulmanak, hinduak edo katolikoak. Karitateko Misiolariak elkartearen bidez, GIBa edo hiesa, legenarra edo tuberkulosia duten pertsonentzako hospizioak edo etxeak jarri zituen martxan, bai eta herri-jantokiak, kontsultategiak, klinika mugikorrak, familia-orientaziorako programak, umezurtz-etxeak eta eskolak ere. Beste boto bat gehitu zien kastitatearen, pobreziaren eta obedientziaren boto tradizionalei: “txiroen arteko txiroenen aldeko bihotz-bihotzeko zerbitzua”. **1979an Bakearen Nobel Saria jaso zuen; handik urtebetera, Bharat Ratna aitortu zioten, hau da, Indiako sari zibilik garrantzitsuena.** Hil ondoren, berriz, Joan Paulo II.ak beatifikatu egin zuen.

*De nombre original Agnes Gonxha Bojaxhiu y ascendencia albanesa, nace el año de 1910 en Uskub, ciudad del Valiato Otomano de Kosovo (actual Skopie, Macedonia) y pasa la mayor parte de su vida en la India, hasta su muerte en 1997. Religiosa católica, fundadora de la congregación de las Misioneras de la Caridad en Calcuta en 1950. Atiende durante más de 45 años a pobres, enferm@s, huérfanos y moribundo@s, al tiempo que guía la expansión de su congregación, en un primer momento en la India y de ahí hasta 133 países. En 1952, las autoridades indias le permiten convertir un templo hindú abandonado en el primer Hogar para los Indigentes Enfermos y Moribundos, el Nirmal Hriday u Hogar del Purísimo Corazón. Allí los indigentes reciben atención médica y en su caso, la oportunidad de morir con dignidad, de acuerdo con los rituales de su fe, ya sean éstos musulman@s, hindúes o católic@s. Desde las Misioneras de la Caridad pone en marcha hospicios y hogares para personas con VIH/SIDA, lepra o tuberculosis, así como comedores populares, dispensarios y clínicas móviles, programas de orientación familiar, orfanatos y escuelas. A los tradicionales votos de castidad, pobreza y obediencia la religiosa propone un cuarto voto de «servicio de todo corazón a los más pobres entre los pobres».* ***En 1979 recibe el Premio Nobel de la Paz; un año después es reconocida con el Bharat Ratna, el galardón civil más importante de la India;*** *y tras su muerte, es beatificada por el papa Juan Pablo II.*

https://despierten.files.wordpress.com/2013/02/madre-teresa-calcuta.jpg




bestea • prójim@

1957an jaio zen, Afganistango Ghazni probintzian. Hazara herriko lehen emakumea izan zen Medikuntzako titulua lortzen (Kabulgo Unibertsitatea, 1982). 1984an, okupazio sobietarrean, Pakistanera alde egin zuen, eta han mediku-zerbitzuak eman zizkien errefuxiatu afganiarrei. Emakume errefuxiatu afganiarrentzako osasun-azpiegiturarik ez zegoela ikusirik, 1987 eta 1989 artean Shuhada klinika eta erakundea sortu zuen Quettan, Pakistanen, laguntza sanitarioa emateko, eta medikuak eta irakasleak gaitzeko. Ondorengo urteetan, Shuhada Afganistan osoan zehar hedatu zen. Hamar urtez errefuxiatu izan ostean, 2002an sorterrira itzuli zen, Hamid Karzairen gobernura, Emakumeen Gaietarako ministro lan egiteko. Ordea, herio-mehatxua egin zioten, eta karguari uko egin behar izan zion. 2005ean, Sudango giza eskubideen egoerari buruzko kontalari berezi izendatu zuten. 2010ean goi-mailako hezkuntzako Gawharshad institutua sortu zuen; irabazi-asmorik gabeko unibertsitate pribatua da, eta izenak Timorid inperioko Gawharshad Begum erregina ohoratzen du: “garrantzi handia izan zuen XVI. mendean arteak, zientziak, literatura, filosofia eta arkitektura garatzen Afganistanen”. **Gaur egun, Afganistango Giza Eskubideen Batzorde Independenteko (AIHRC) zuzendaria da.**

*Nace en 1957 en la Provincia Ghazni de Afganistán. Primera mujer del pueblo Hazara en obtener un título de medicina (Universidad de Kabul, 1982). En 1984, durante la ocupación soviética, huye a Pakistán, donde ofrece servicios médicos a los refugiados afganos. Ante la falta de infraestructuras de salud para las mujeres refugiadas afganas, entre 1987 y 1989 crea la clínica y organización Shuhada en Quetta (Pakistán), dedicada tanto a la atención sanitaria como a la capacitación de personal médico y educativo. En los años sucesivos Shuhada se extiende por Afganistán. Tras una década como refugiada, en 2002 regresa a su país para trabajar en el gobierno de Hamid Karzai como ministra de Asuntos de la Mujer pero, tras ser amenazada de muerte, se ve obligada a renunciar. En 2005 es nombrada Relatora Especial sobre la situación de los derechos humanos en el Sudán. En 2010 funda el Instituto Gawharshad de Educación Superior, universidad privada sin ánimo de lucro cuyo nombre honra a la reina Gawharshad Begum del Imperio Timorid «que tuvo un papel destacado en el desarrollo de las Artes, Ciencias, Literatura, Filosofía y Arquitectura en Afganistán durante el siglo XVI».* ***Actualmente es la directora de la Comisión Independiente de Derechos Humanos de Afganistán (AIHRC).***

http://multimedia.pol.dk/archive/00379/Sima_Samar__379915a.jpg




# gizartea • sociedad

Porbandarren jaio zen (Gujarat estatua, India), 1869an, eta integrista batek erailda hil zen, New Delhin, 1948an. Áhimsa doktrina sinetsi eta praktikatzen zuen (indarkeriarik eza eta bizitzarekiko errespetua), hots, hinduismoaren, budismoaren eta jainismoaren oinarrizko printzipioa. Zuzenbidea ikasi zuen Londresko Inner Temple eskolan, eta abokatu aritu zen Hegoafrikan. Han, komunitate indiarraren egoeraren inguruan kontzientziatu zen, eta haien eskubide zibilak sustatu beharra zegoela jabetu zen. Hala, 1906an, Satyagraha kontzeptua sortu zuen, Indiar Mugimenduari dei egiteko. Satyagraha kontzeptua satya (egia) eta agraha (irmotasuna) hitzen arteko elkarketa da, borroka politikoa alderdi espiritualarekin batzeko asmatua. 1915ean, Indiara itzultzean, nekazariak, laborariak eta hiriko langileak antolatu zituen, gehiegizko zergen eta bazterkeriaren aurka protesta egiteko. 1921ean, Indiako Kontseilu Nazionaleko (CNI) zuzendari egin zuten, eta hainbat kanpaina sustatu zituen pobrezia murrizteko, emakumeen eskubideak areagotzeko, etnien eta erlijioan artean batasuna ezartzeko, eta kasta-sistema ezeztatzeko. Indiako independentziaren aldeko mugimenduaren buru bihurtu zen: **1930eko urtarrilean, CNIk Purna Swaraj edo Independentziaren Aldarrikapena egin zuen, eta, handik gutxira, Salt Satyagraha edo Gatzaren Martxa antolatu zuen: Britainia Handiak gatzaren inguruan zuen monopolioaren kontrako indarkeriarik gabeko desobedientzia-kanpaina izan zen, eta Inperioaren independentziaren inguruko ekintza sinbolikoa.** Indarkeriari aurre egiteagatik eta egiaren bila aritzeagatik espetxeratu zuten, eta bi helburu horiek bizimodu bihurtu zituen, autosufizientzia ekonomikoan, jantzietan eta elikaduran ezarriz. Bere herrialdea Britainiar Inperiotik independizatu zenean, Indiako gizartea eraldatzen saiatu zen kasta apalenak integratuz, landa-eremuak garatuz, eta hinduen eta musulmanen arteko oreka sustatuz.

*Nace en Porbandar (Estado de Gujarat, India), en 1869 y muere asesinado por un integrista en Nueva Delhi, en 1948. Creyente y practicante de la áhimsa —la no-violencia y el respeto a la vida— principio básico del hinduismo, budismo y jainismo. Estudia leyes en el Inner Temple de Londres y trabaja como abogado en Sudáfrica. Allí toma conciencia de la situación de la comunidad india y de la necesaria promoción de sus derechos civiles. En 1906 crea el concepto Satyagraha para llamar al Movimiento Indio. Satyagraha es un compuesto de las palabras 'satya' ("verdad") y 'agraha' ("firmeza") que trata de vincular la lucha política con la dimensión espiritual. En 1915, a su regreso a la India, organiza a campesinos, agricultores y trabajadores urbanos para protestar contra los impuestos excesivos y la discriminación. En 1921 asume la dirección del Consejo Nacional Indio (CNI) desde donde impulsa campañas para aliviar la pobreza, ampliar los derechos de las mujeres, establecer la armonía entre etnias y religiones y abolir el sistema de castas. Se convierte en el líder del movimiento de la independencia de la India:* ***en enero de 1930 el CNI promulga la Purna Swaraj o Declaración de Independencia y poco después se organiza la Salt Satyagraha o Marcha por la Sal, campaña de desobediencia no-violenta contra el monopolio británico sobre la sal y acción simbólica de independización del Imperio.*** *Su resistencia no-violencia y búsqueda de la verdad le llevan a sufrir presidio y llega a convertir ambas virtudes en una práctica de vida que traslada a la autosuficiencia económica, al vestido y a la alimentación. Una vez su país se independiza del Imperio Británico, trata de reformar la sociedad india integrando las castas más bajas, desarrollando las áreas rurales y promocionando la armonía entre hindúes y musulmanes.*



http://media-3.web.britannica.com/eb-media//91/114891-050-79158734.jpg




## gizartea • sociedad

Tuskege-en jaio zen (Alabama estatua, AEB), 1913an, eta Detroiten hil (Michigan), 2005ean. Arraza beltzekoa zen, eta bere bizitzaren ia erdian bereizkeria jasan zuen; zehazki, 1900ean onartutako ordenantza baten bidez Montgomery-ko autobus-sistema ezarri zenetik. Sistema horrek arrazaren arabera bereizten zituen bidaiariak: eserlekuen lehenengo lau ilarak bidaiari "zurientzat" zeuden erreserbatuta, eta bidaiari "beltzak", berriz, gidariari bidaia-txartela ordaindu eta atzeko atetik sartzen ziren. Arraza zuriko bidaiarientzat behar beste jarleku ez bazegoen, arraza beltzekoek eurenak laga behar zizkieten, eta zutunik joan; are gehiago, autobusera sartu gabe ere gelditzen ziren. Hiri-lineako gidariek ordenantza ezartzeko ahalmena zuten. Bidegabekeria hori urte askoan jasan eta "Montgomeryn oinez asko ibili" ondoren, 1955eko abenduaren 1ean desobeditzea erabaki zuen. Egun hartan, arratsaldez, lanetik bueltan zihoala, autobusa bidaiari zuriz betetzen joan zen, eta, bakoitzak bere jarlekuak hartu ostean, arraza beltzeko bidaiariei zutunik jartzeko exijitu zieten, beren eserlekuak uzteko. Rosa Parksek uko egin zion jaikitzeari, eta atxilo hartu zuten, "ordena asaldatzeagatik": "Esaten dute nekatuta nengoelako ez nintzela altxatu jarlekutik, baina nire nekea ez zen fisikoa, ez behintzat lanegun baten amaieran izan ohi dena baino handiagoa: behin eta berriz amore emateaz nengoen nekatuta". Haren desobedientzia-ekintzan, atxiloketan eta epaiketan oinarritu zen eskubide zibilen aldeko mugimendua, Martin Luther Kingek zuzendu zuena. Hasteko, ia urtebeteko boikota egin zioten Montgomeryko autobus-lineari. Eskubide zibilen alde egiten hasi zenez, lana galdu zuen; haren senarrak lana utzi zuen, eta lehenik **Hampton-era (Virginia) eta gero Detroit-era (Michigan) lekualdatu zen. Han, afroamerikarren aurkako bazterkeria zeinen zabalduta zegoen ikusirik, etxebizitza irekiaren eta bidezkoaren aldeko mugimenduari ekin zion.** AEBko Kongresuak eskubide zibilen aldeko lehen damaren eta askatasunen aldeko mugimenduaren amaren tituluak eman zizkion.

*Nace en Tuskegee (Estado de Alabama, EE.UU.) en 1913 y muere en Detroit (Michigan) en 2005. De raza negra, durante casi la mitad de su vida sufre la segregación. En concreto, desde el sistema de autobuses de Montgomery, que venía aplicando una ordenanza, acordada en 1900, de discriminar a los pasajeros por raza: las cuatro primeras filas de asientos estaban reservadas para los pasajeros "blancos", mientras que los pasajeros "de color" pagaban el pasaje al conductor y entraban por la puerta de atrás, y si no había suficientes asientos para los viajeros de raza blanca, los de raza negra debían ceder los suyos, ir de pie, incluso no montarse; y los conductores de la línea urbana estaban facultados para aplicar la ordenanza. Tras muchos años de sufrir esta injusticia y «mucho camino a pie en Montgomery», el 1 de diciembre de 1955 decide desobedecer. Ese día por la tarde, de vuelta de una jornada de trabajo, el autobús va llenándose de pasajeros blancos, y una vez ocupan éstos sus sitios asignados, los que quedan de pie exigen a los pasajeros de raza negra levantarse y cederles sus asientos. Ella se niega y es arrestada por "perturbar el orden": «Dicen que no me levanté del asiento porque estaba cansada pero mi cansancio no era físico, no más de lo habitual al final de un día de trabajo: de lo que estaba cansada era de ceder y ceder». Su acción desobediente, el arresto y su juicio inspiran el movimiento por los derechos civiles que habría de liderar Martin Luther King, empezando por la campaña de casi un año de boicot a la línea de autobuses de Montgomery. Entregada a la lucha por los derechos civiles, pierde su trabajo, su marido renuncia a su empleo y* ***se traslada primero a Hampton (Virginia) y después a Detroit (Míchigan) donde, consciente de la extensión de la discriminación contra los afroamericanos, se involucra en el movimiento por la vivienda abierta y justa.*** *Es considerada la primera dama de los derechos civiles y madre del movimiento por las libertades por el Congreso de los EE.UU.*

http://www.coloringsheets.info/images/374584-rosa-parks.jpg




gizartea • sociedad

Atlantan jaio zen (AEB), 1929an, eta Memphisen hil (Tennessee), 1968an, segregazionista zuri batek hilda. Eliza Baptistako artzaina zen, eta Montgomeryko Hobekuntzarako Elkarteko (MIA) buru izendatu zuten. Elkartea Rosa Parksek 1955ean egindako desobedientzia-ekintzatik sortu zen, eta hark sustatu zuen arraza beltzeko bidaiarien segregazioaren kontra Montgomeryko autobusei ia urtebetez egin zieten kanpaina. 1957an, beste kide batzuekin batera, Buruzagitza Kristauaren Hego Konferentzia (SCLC) sortu zuen, Birminghameko (Alabama) indarkeriarik gabeko protestak eta Washingtonerako martxa (biak ere 1963ko kanpainak) antolatu zituen plataforma. Martxa hartan bertan eman zuen "I have a dream" ("Amets bat dut") hitzaldi entzutetsua. 1964an Bakearen Nobel Saria eman zioten, indarkeriarik gabe arraza-desberdintasunaren aurka egindako borrokagatik. 1965ean, bat egin zuen Selma eta Montgomery arteko 90 kilometroetatik igaro ziren ibilaldiekin: afroamerikarren boto-eskubidearen alde egin zuten martxa, poliziak gogor erreprimitu bazituen ere. Horren ondoren, erail zuten arte, bere kanpainen motiboak zabaldu zituen. **1967an, "Beyond Vietnam: A Time to Break Silence" ("Vietnamdik harago: isiltasuna hausteko ordua") hitzaldia eman zuen, Vietnamgo gerraren aurka eman zuen lehena.** 1968an, erail egin zuten Poor People's Campaign (Txiroen Kanpaina) antolatzen ari zela, hau da, Washington DCko okupazio nazionaleko indarkeriarik gabeko ekintza, AEBko babes gutxieneko pertsonei justizia ekonomikoa emateko helburua zuena.

*Nace en Atlanta (EEUU) en 1929 y muere en Memphis (Tennessee) en 1968, asesinado por un segregacionista blanco. Pastor de la Iglesia Bautista, designado para dirigir la Asociación para el Mejoramiento de Montgomery (MIA), creada a partir del acto de desobediencia de Rosa Parks en 1955, y promotora de la campaña de casi un año de boicot a los Autobuses de Montgomery por imponer la segregación de los pasajeros de raza negra. En 1957 co-funda la Conferencia Sur de Liderazgo Cristiano (SCLC), plataforma desde la que organiza las protestas no-violentas de Birmingham (Alabama), o la marcha a Washington donde pronuncia su famoso discurso «I have a dream» ("Yo tengo un sueño"), ambas campañas de 1963. En 1964 es galardonado con el Nobel de la Paz por su lucha contra la desigualdad racial mediante la no-violencia. En 1965 apoya las Marchas que recorren los casi 90 km entre Selma y Montgomery a favor del derecho a voto de las y los ciudadanos afroamericanos a pesar de la fuerte represión de la policía. Posteriormente, hasta su asesinato, amplía los motivos de sus campañas.* ***En 1967 pronuncia su discurso «Beyond Vietnam: A Time to Break Silence» ("Más allá de Vietnam: un momento para romper el silencio"), su primer discurso contra la guerra de Vietnam.*** *En 1968 es asesinado cuando planeaba la Poor People's Campaign ("Campaña de los Pobres"), un acto no-violento de ocupación nacional de Washington DC. dirigido a llevar la justicia económica a las personas más desfavorecidas de los Estados Unidos.*



http://msutoday.msu.edu/_/img/assets/2014/martin-luther-king-jr.jpg






1918an jaio zen, Mthathatik gertu, Hegoafrikako Lurmutur Ekialdea probintzian, eta Johannesburg-en hil zen (Hegoafrika), 2013an. 1943an African National Congress (ANC) biltzarrarekin bat egin zuen, eta hurrengo urtean ANCren Gazteen Liga sortzen parte hartu zuen. 1950ean Gazteen Ligako presidente nazional hautatu zuten, eta 1952an bertako beltzak eta komunistak elkartu zituen apartheidari (arraza-segregaziorako Hegoafrikako eta Namibiako sistema) aurre egiteko kanpaina batean. 1961ean, Fidel Castroren Uztailaren 26ko Mugimenduan inspiratuta, Umkhonto we Sizwe (Nazioaren Lantza, MK) erakundea sortu zuen beste batzuekin batera. Erakunde horrek sabotajea babesten du borrokarako bide gisa, "inor hil gabe, etorkizunean arrazen arteko bakea lortzeko itxaropen hobeak emateko". 1962an atxilotu egin zuten, gobernua eraisteko konspiratzen aritu izana leporatuta, eta 1964an Robben Island-eko espetxera eraman zuten. Hurrengo 18 urteak eman zituen han; hasieran baldintza oso gogorretan bizi zen, baina, apurka-apurka, bere eskubideak areagotuz joan zen. 1988an uhartetik atera zen, baina ez zuen askatasunik lortu 1990. urteko hasiera arte. Ordutik aurrera, kontaktuak egiten hasi zen Afrikako eta Europako kontinenteen artean, eta, 1991ko bukaera aldera, Hegoafrika Demokratikoaren aldeko Biltzarra (CODESA) antolatu zuen. 1993an Bakearen Nobel Saria jaso zuen Frederik de Klerk-ekin batera, apartheidaren erregimena modu baketsuan amaitzeagatik eta Hegoafrika demokratiko baten aldeko oinarriak finkatzeagatik. 1994ko hauteskunde orokorretan, ANCk botoen % 62 lortu zituen, eta Mandela presidente hautatu zuten. 1994 eta 1999 artean, gobernu minoritario arrazista zuen herrialdea eraldatu eta kulturarteko demokrazia ezarri zuen. Helburu hauek zituen: erakundeetatik arrazakeria kentzea, kolonialismotik heredatutako pobrezia borrokatzea eta, batik bat, nazioa adiskidetzea eta batzea. Xede horrekin, **Egiaren eta Adiskidetzearen aldeko Batzordea (Truth and Reconciliation Commission, TRC) sortu zuen, apartheidaren garaian giza eskubideei egindako urraketak ikertzeko, eta biktimagileei eta biktimei justizia konpontzaileko neurriak ezartzeko.** Politika utzi ostean, pertsonen alde lan egiten segitu zuen, 2013an hil zen arte.

*Nace en 1918 cerca de Mthatha, provincia del Cabo Oriental de Sudáfrica y fallece en Johannesburgo (Sudáfrica) en 2013. En 1943 ingresa en el African National Congress (ANC) y el siguiente año participa en la fundación de la Liga Juvenil del ANC. En 1950 es elegido presidente nacional de la Liga Juvenil y en 1952 junta a grupos nativos negros y comunistas en una campaña de desafío al Apartheid (sistema de segregación racial en Sudáfrica y Namibia). En 1961, inspirado por el "Movimiento 26 de Julio" de Fidel Castro, co-funda la organización Umkhonto we Sizwe ("Lanza de la Nación", MK), que apoya el sabotaje como medida de lucha sin «la pérdida de vidas, para ofrecer mejores esperanzas de reconciliación interracial en el futuro». En 1962 es arrestado y acusado de conspiración para derrocar al gobierno, y en 1964 es trasladado a la prisión de Robben Island, donde permanece durante los siguientes 18 años, al principio en las condiciones más duras y ampliando progresivamente sus derechos. En 1988 sale de la isla pero sigue privado de libertad hasta principios de 1990. A partir de entonces emprende una gira de contactos en los continentes africano y europeo y, a finales de 1991, convoca la Convención por una Sudáfrica Democrática (CODESA). En 1993 recibe el Premio Nobel de la Paz junto a Frederik de Klerk por su trabajo por el fin pacífico del régimen de Apartheid y por el asentamiento de las bases para una Sudáfrica democrática. En las elecciones generales de 1994 el ANC obtiene el 62% de los votos y es elegido presidente. Entre 1994 y 1999 transforma el país de un gobierno minoritario racista a una democracia intercultural. Sus objetivos son la erradicación del racismo de las instituciones, el combate de la pobreza heredada del colonialismo y sobre todo, la reconciliación y unidad nacional, para lo cual* ***promueve la creación de la Comisión para la Verdad y la Reconciliación (Truth and Reconciliation Commission, TRC) a fin de investigar las violaciones a los derechos humanos cometidas durante el Apartheid y decretar medidas de justicia restaurativa a victimarios y víctimas.*** *Tras su retiro de la política continúa su actividad filantrópica hasta su muerte en 2013.*

http://www.citynews.ca/wp-content/blogs.dir/10/files/2013/12/nelson.jpg




## gizartea • sociedad

Henri Grouès zuen berezko izena. Lyonen jaio zen (Frantzia), 1912an, eta Parisen hil, 2007an. Apaiz katoliko frantziarra zen, Erresistentziako kidea (nazien okupazioaren kontrako mugimendua zen, eta "txiroen aingerua" ezizena jarri zioten han) eta IV. Errepublikako Biltzarreko diputatua. 1946an Erresistentziaren Domina eman zioten, Hala Frantzian nola nazioartean frantziar herriari etsai eta konplizeei aurre egiten lagundu dioten fede- eta adore-ekintza nabarmenak aitortzeko. Batez ere diputatu izateagatik zituen diru-sarrerei esker, 1949an Emausko Trapuketariak erakundea sortu zuen, bazterkeriaren eta pobreziaren aurka borroka egiteko. **1954ko neguan, Radio Luxembourg irratitik Appel au secours (Laguntza-deia) eman zuen, jendea Parisko etxegabeen tragediaz kontzientziarazteko. Horrek L'insurrection de la bonté ekarri zuen (Adeitasunaren matxinada): herritar guztiek 500 milioi libera eman zituzten.** 2004an, Frantziako Estatuak haren lana aitortu zuen, Ohorezko Legioaren Gurutze Handia emanez. Hona haren lelo ospetsuenetako bi: "Jaten eman ebanjelizatu aurretik", eta "Gerra bakarra izango da erabat bidezkoa: miseriaren kontrako gerra". Gaur, Nazioarteko Emausek 336 talde ditu 37 herrialdetan.

*De nombre original Henri Grouès, nace en Lyon (Francia) en 1912 y fallece en Parísen 2007. Sacerdote católico francés, miembro de la Resistencia (movimiento contra la ocupación nazi) donde adquiere su sobrenombre de "El ángel de los pobres", y diputado en la Asamblea de la IV República. En 1946 recibe la Medalla de la Resistencia, que reconoce los notables actos de fe y de coraje que, en Francia y en el extranjero, han contribuido a la resistencia del pueblo francés contra el enemigo y contra sus cómplices. Gracias sobre todo a los ingresos de su sueldo como diputado, funda en 1949 los "Traperos de Emaús", organización de lucha contra la exclusión y la pobreza.* ***En el invierno de 1954, pronuncia desde las antenas de Radio Luxemburgo su Appel au secours (Llamada de socorro) concientizando de la tragedia de los sin-techo en París, que desencadena L'insurrection de la bonté ("La insurrección de la bondad"), una donación masiva e inaudita de 500 millones de francos por parte de toda la ciudadanía.*** *En 2004 el Estado francés reconoce su labor distinguiéndolo con la Gran Cruz de la Legión de Honor. Dos de sus lemas más famosos son: «Dar de comer antes de evangelizar», y «Sólo una guerra será absolutamente justa: la guerra contra la miseria». Hoy, Emaús Internacional cuenta con 336 grupos en 37 países.*



http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/7/75/ABBE_PIERRE-24x30-1999.jpg




gizartea • sociedad

1940an jaio zen, Euskadin, eta 7 urterekin Estatu Batuetara aldatu zen. Han, lehenik Idahon bizi izan zen, eta gero Kalifornian, 2014an hil zen lekuan. Antropologo kulturala, idazlea, hezitzailea eta erakunde eta enpresa ugariren aholkularia izan zen. Antropologia kulturala, psikologia eta erlijio konparatuak elkartu zituen, eta medikuntzan, hezkuntzan eta korporazioetan lagundu zuen, philosophia perennis jardunbidea ezarrita (herri eta kultura guztientzat berberak diren egia eta balioen multzo unibertsala). **Foundation for Cross Cultural Education and Research (Kulturarteko Hezkuntzaren eta Ikerkuntzaren aldeko Fundazioa) sortu eta zuzendu zuen. Fundazioaren lana da erakustea indigenen jakinduriak zer-nolako garrantzia duen gure bizitza pertsonalerako, bizitza profesionalerako eta familiako bizitzarako, eta guk Lurrarekin dugun harremana hobetzeko. Helburu hauxe du: ahalik eta herrialde gehienetan lan egitea, kultura indigenak, jakinduria iraunkorrak, ura, haziak eta zuhaitzak babesteko.** Bestalde, Foundation for Shamanic Studies (Ikasketa Xamanikoen Fundazioa) fundazioarekin ere lan egin zuen. Haren lanen artean nabarmentzekoa da *The Four-Fold Way: Walking the Paths of the Warrior, Teacher, Healer and Visionary.* Haren liburuak hamahiru hizkuntzatara itzuli dira, eta hiru aldiz izendatu dute Honoris Causa doktore, egindako lanaren aitorpen.

*Nace en 1940 en el País Vasco y se traslada con 7 años a los Estados Unidos. Allá vive, primero en Idaho, y después en California, donde fallece en 2014. Antropóloga cultural, escritora, educadora y consultora de numerosas organizaciones y empresas. Conecta la antropología cultural, la psicología y las religiones comparadas, y contribuye con muchas prácticas de la filosofía perenne (conjunto universal de verdades y valores comunes a todos los pueblos y culturas) en entornos médicos, académicos y corporativos.* ***Crea y preside la Foundation for Cross Cultural Education and Research (Fundación para la Educación e Investigación Intercultural). La labor de su fundación es revelar la importancia que tiene la sabiduría indígena para nuestras vidas personales, profesionales y familiares, así como para la mejora de nuestra relación con la Tierra; y su objetivo es trabajar en tantos países como sea posible para la preservación de las culturas indígenas, las sabidurías perennes, el agua, las semillas y los árboles.*** *Colabora asimismo con la Foundation for Shamanic Studies (Fundación de Estudios Chamánicos). Entre sus obras cabe destacar* The Four-Fold Way: Walking the Paths of the Warrior, Teacher, Healer and Visionary *(Las Cuatro Sendas del Chamán: el Guerrero, el Sanador, el Vidente, el Maestro). Sus libros han sido traducidos a trece idiomas y en reconocimiento a su trabajo ha recibido tres doctorados honoris causa.*

http://www.ciis.edu/images/Programs/ANTH/Arrien-Angeles-Scholarship.png




gizartea • sociedad

Rangoonen jaio zen (gaur egungo Yangonen), Myanmarren, 1945ean. Theravada eskola budistako kide izan zen ("Dharmaren Gurpila" edo "Legearen Gurpila" da eskola horren irudia, Budak nirvanarako bideaz irakatsitakoaren sinboloa). Gaztetan New Delhin (India) eta Oxforden (Erresuma Batua) egin zituen ikasketak, eta, graduatu ondoren, New Yorkera joan zen bizitzera, Nazio Batuetan lan egitera. 1972ko lehenengo egunean, Michael Aris doktorearekin ezkondu zen; kultura tibetarreko irakaslea zen. Birmaniara bueltatu zenean (gaur egungo Myanmarrera), 1988an, Ne Win diktadoreak uko egin zion boterearí, eta "8888 Altxamendua" deitzen zaien demokraziaren aldeko manifestazioetan (88ko abuztuaren 8an hasi ziren) jendaurreko lehen hitzaldia eman zuen, milioi erdi pertsonaren aurrean, eta herriko ikono bihurtu zen. Urte hartan bertan, Demokraziaren aldeko Liga Nazionala (LND) sortu zuen beste kide batzuekin batera, eta bera izan zen zuzendari. 1991n Freedom from Fear saiakera kaleratu zuen: egilearen beraren bilakabide morala, intelektuala eta pertsonala erakusten du, eta Birmaniako (Myanmar) historia, kultura, gizartea eta demokraziaren aldeko borroka azaltzen ditu. Urte horretan, Bakearen Nobel Saria eman zioten, baina ezin izan zuen jaso 21 urte igaro ziren arte, 2012an. **2007an Myanmarko Junta Militarraren kontrako Azafrai Iraultza sustatu zutenetako bat izan zen. Gandhiren indarkeriarik ezean oinarrituriko konpromiso politiko hori dela eta, espetxealdiak egin zituen ia 12 urtez (6 urte 1989tik 1995era, 19 hilabete 2000tik 2002ra, hiru hilabete 2003an, hiru urte eta erdi 2007tik 2010era), eta gaur egun oraindik ere epaiketetan dabil.** Haren hitzetan: "Oraindik ere preso gaude geure herrialdean".

*Nace en Rangoon (actual Yangon), Myanmar, en 1945. Pertenece a la escuela budista Theravada (representada por la "Rueda de Dharma" o "Rueda de la Ley", símbolo de la enseñanza del Buda de la trayectoria a Nirvana). De joven cursa sus estudios en Nueva Delhi (India) y Oxford (Reino Unido) y tras su graduación vive en Nueva York, donde trabaja para Naciones Unidas. El primer día de 1972 contrae matrimonio con el Dr. Michael Aris, profesor de cultura tibetana. Su vuelta a Birmania (actual Myanmar) en 1988 coincide con la renuncia al poder del dictador Ne Win y durante las manifestaciones a favor de la democracia, conocidas como el "Levantamiento 8888" (iniciado el 8 de agosto del 88), pronuncia su primer discurso público ante medio millón de personas convirtiéndose en icono popular. Ese mismo año co-funda la Liga Nacional para la Democracia (LND), organización que preside en lo sucesivo. En 1991 publica su ensayo, Freedom from Fear, que muestra la evolución moral, intelectual y personal de la autora y describe la historia, la cultura, la sociedad y la lucha por la democracia en Birmania (Myanmar). Y ese mismo año recibe el Premio Nobel de la Paz, que no podrá recoger hasta 21 años después, en 2012.* ***En 2007 es una de las promotoras de la Revolución Azafrán contra la Junta Militar de Myanmar. Su compromiso político, aun inspirado en la no-violencia de Gandhi, le cuesta sufrir durante casi 12 años una serie de periodos de prisión —6 años entre 1989 y 1995, 19 meses entre 2000 y 2002, tres meses en 2003, tres años y medio entre 2007 y 2010— y en la actualidad sigue sometida a juicios.*** *En sus palabras: «Todavía somos prisioneros en nuestro propio país».*



http://thewiselatinaclub.com/wp-content/uploads/2014/08/aung-san-suu-kyi-2.jpg




## gizartea • sociedad

Gernika-Lumon jaio zen (Euskadi), 1966an. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. 2002an, Gernika Gogoratuz – Bakearen aldeko Aztertegiaren zuzendaritza hartu zuen: ordutik, Gernikako Kulturaren eta Bakearen Nazioarteko Jardunaldien, eta Gernika Sarea argitalpen-sailaren ardura du, eta Gernikako Artearen eta Bakearen Nazioarteko Topaketak antolatzen laguntzen du. 2007 eta 2011 artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarte Foroko buru izan zen, eta zuzendari-kide 2011tik 2014ra. Era berean, 2005. urteaz geroztik, Bakearen Ikerkuntzarako Espainiako Elkartearen (AIPAZ) Zuzendaritza Batzordeko kide da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetza Planaren Aholku Batzordeetan parte hartu du (2011-2015), bai eta “Identidad y conflicto: Patrimonio cultural y reconstrucción de identidades tras el conflicto” Europako Lankidetzarako Proiektuan (CRIC) ere (2008-2012). **2010ean Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen aldeko René Cassin Saria eman zioten.**

*Nace en Gernika-Lumo (País Vasco) en 1966. Es licenciada en Filosofía y Ciencias de la Educación por la Universidad del País Vasco. En 2002 asume la dirección de la Fundación y del Centro de Investigación para la Paz Gernika Gogoratuz, desde donde se responsabiliza de las Jornadas Internacionales de Cultura y Paz de Gernika, de la serie editorial Red Gernika, así como de la co-organización de los Encuentros Internacionales de Arte y Paz de Gernika. Presidenta, entre 2007 y 2011, del Foro de Asociaciones de Educación en Derechos Humanos y por la Paz del País Vasco, y miembro de su dirección entre 2011 y 2014. Participa asimismo, desde 2005, en la Junta rectora de la Asociación Española de Investigación por la Paz (AIPAZ) y colabora en los Consejos Consultivos de los Planes de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco (2011-2015), así como en el Proyecto de Cooperación Europeo CRIC “Identidad y conflicto: Patrimonio cultural y reconstrucción de identidades tras el conflicto” (2008-2012).* ***En 2010 es galardonada con el Premio René Cassin de Derechos Humanos del Gobierno Vasco.***

# Ignacio Ellacuría



## gizadia • humanidad

Portugaleten jaio zen (Euskadi), 1930ean, eta El Salvadorren asasinatu zuten (Erdialdeko Amerika), 1989an. 1947an Jesusen Lagundiko nobiziatuan sartu zen, Loiolan (Gipuzkoa), eta 1949an El Salvadorrera bidali zuten. 1955ean Filosofian lizentziatu zen Quiton. Teologia ikasi zuen Innsbrucken (Austria), Karl Rahner-ekin. Han presbitero ordenatu zen, eta Portugalete jaioterrian apaiz. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean doktoratu zen, Xavier Zubiri filosofoaren obrari jarraipena emanez. 1967an El Salvadorrera itzuli zen, eta Erdialdeko Amerikako Unibertsitatean (UCA) hasi zen irakasle. Medellíngo 1968ko Latinoamerikako Apezpikutzaren Biltzarraz geroztik, Askapenaren Teologiara bideratu zuen bere lana. 1972an UCAko Filosofia Saileko zuzendari izendatu zuten, eta *Teología política* liburua kaleratu zuen. 1976an Revista de Estudios Centroamericanos (ECA) aldizkariko zuzendari izendatu zuten, eta han argitaratu zuen bere editorial sonatua: “A sus órdenes, mi capital”. Argitalpen horrek El Salvadorreko Gobernuak UCAri diru-laguntza gehiagorik ez ematea ekarri zuen, eta Unibertsitatea paramilitarren jomugan jarri zuen. 1979an UCAko errektore izendatu zuten. **Handik urtebetera (1980), FMLNaren eta herrialdeko indar armatuen artean El Salvadorreko gerra piztu zenean, gatazkaren irtenbide negoziatua defendatu zuen. 1985ean bitartekari aritu zen, Duarte presidente ohiaren alaba (gerrillak zuen bahitua) eta 22 preso politiko askatzeko. 1989ko azaroaren erdialdean, El Salvadorreko Indar Armatuaren pelotoi batek asasinatu zuen, beste bost jesuitarekin, zerbitzuko emakume langile batekin eta haren alabarekin batera.**

*Nace en Portugalete (País Vasco) en 1930 y es asesinado en El Salvador (Centroamérica) en 1989. En 1947 ingresa en el noviciado de la Compañía de Jesús en Loiola y en 1949 es enviado a El Salvador. En 1955 se licencia en Filosofía en Quito. Estudia Teología en Innsbruck (Austria) con Karl Rahner. Allá se ordena presbítero y en Portugalete, su villa natal, sacerdote. Se doctora en la Universidad Complutense de Madrid continuando la obra del filósofo Xavier Zubiri. Regresa a El Salvador en 1967 para incorporarse a la Universidad Centroamericana (UCA) como profesor. A partir de la Conferencia del Episcopado Latinoamericano de Medellín, de 1968, orienta su trabajo a la Teología de la Liberación. En 1972 es nombrado Director del Departamento de Filosofía de la UCA y publica su libro* Teología política. *En 1976 es nombrado director de la revista de Estudios Centroamericanos (ECA), desde donde publica el famoso editorial “A sus órdenes, mi capital”, que ocasiona la retirada del apoyo económico del Gobierno salvadoreño a la UCA y sitúa a la Universidad en el punto de mira paramilitar. En 1979 es nombrado rector de la UCA.* ***Desde el desencadenamiento un año después (1980) de la guerra en El Salvador (entre la guerrilla del FMLN y las Fuerzas Armadas del país) defiende una solución negociada del conflicto. En 1985 media para lograr la liberación de la hija del ex presidente Duarte, secuestrada por la Guerrilla, así como de 22 presos políticos. A mediados de noviembre de 1989 es asesinado por un pelotón de la Fuerza Armada de El Salvador, junto a otros cinco jesuitas, una empleada de servicio y su hija.***



https://elmermenjivar.files.wordpress.com/2012/01/ellacuricc81a03-peq.jpg




## gizadia • humanidad

Baionan jaio zen (Ipar Euskal Herria, Frantzia), 1887an, eta Parisen hil, 1976an. Jurista eta epailea izan zen, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren idazle nagusia (1948), UNESCOren sortzaile (1945) eta Giza Eskubideen Europako Epaitegiko buru (1953). Partaidetza aktiboa izan zuen Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordean (1947) eta Hagako Nazioarteko Justizia Gorte Iraunkorrean. 1968an Bakearen Nobel Saria eman zioten, bizitza guztia eman zuelako bakearen, justiziaren eta giza eskubideen alde lanean, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala idazteko hartutako lanengatik. 1969an, Nobel Sariarekin irabazitako diruarekin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutua sortu zuen. **Gaur egun, Giza Eskubideen Europako Epaitegiak (GEEE) –Estrasburgoko Epaitegi edo Giza Eskubideen Europako Gorte ere esaten zaio– bermatu egiten du Europako 47 estatu kideetako 800 milioi europarrek oinarrizko eskubideak, eskubide zibilak eta eskubide politikoak izatea.**
2003az geroztik, Eusko Jaurlaritzak “René Cassin” izeneko saria ematen die GGEEen esparruko pertsona edo talde eredugarriei.

*Nace en Baiona (País Vasco-Francés) en 1887 y muere en París en 1976. Jurista y juez, redactor principal de la Declaración Universal de los Derechos Humanos (1948), co-fundador de la UNESCO (1945) y presidente del Tribunal Europeo de Derechos Humanos (1953). Participa activamente en la Comisión de Derechos Humanos de las Naciones Unidas (1947) y en la Corte Permanente de Justicia Internacional de La Haya. En 1968 es galardonado con el Premio Nobel de la Paz por toda una vida consagrada a la paz, la justicia y los derechos humanos, y por sus trabajos como redactor de la Declaración Universal de los Derechos Humanos. En 1969, emplea el dinero del Premio Nobel en la creación del Instituto Internacional de los Derechos Humanos.* ***Actualmente, el Tribunal Europeo de Derechos Humanos (TEDH), también denominado Tribunal de Estrasburgo o Corte Europea de Derechos Humanos, garantiza el acceso a los derechos fundamentales, civiles y políticos a 800 millones de europeos de los 47 estados miembros.***
*Desde el año2003 el Gobierno Vasco concede un premio anual a favor de personas o colectivos referentes en el campo de los DDHH que lleva su nombre.*



# Ikuro Anzai

## gizadia • humanidad

Japonian jaio zen, 1940an. Doktorea da Ingeniaritza Nuklearrean, eta irakasle Ritsumeikan Unibertsitatean. Ritsumeikan Unibertsitateko Kyoto Museum for World Peace (Munduko Bakerako Kyotoko Museoa) sortzen parte hartu zuen, eta hango zuzendari emeritua da. Halaber, Japonian Bakea Aztertzeko Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide, bonba atomikoaren Haiku Memorialaren Biltzarraren Antolakuntza Batzordeko buru eta **Japoniako Konstituzioaren 9. artikuluaren Mezua proiektuaren ordezkaria da; horren bidez uko egiten zaio gerrari eta ez zaio aitorpenik ematen nazio japoniarraren beligerantzia-eskubide subiranoari (konstituzioaren beraren hitzaurrean aipatzen da): «Guk, japoniar herria osatzen dugunok, bakea nahi dugu betiko, eta ezin hobeto ezagutzen ditugu giza harremanak kontrolatzen dituzten ideal gorenak; bada, hori dela eta, gure segurtasuna eta existentzia zaintzea erabaki dugu, konfiantza jarriz justizian eta bakea maite duten munduko herrien fedean».** Halaber, Bakearen Aldeko Japoniako Museoen Elkarteko eta Bakearen Aldeko Museoen Nazioarteko Sareko kide da; 1998an eta 2008an Bakearen Museoen Nazioarteko Hirugarren eta Seigarren Biltzarrak antolatu zituen Japonian. Fukushimako hondamendi izugarriaz geroztik, bete-betean ari da jendea han gertatutakoaz eta horrek tokiko pertsonen artean eragindakoez kontzientziarazteko lanean.

*Nace en Japón en 1940. Doctor en Ingeniería Nuclear y profesor en la Universidad Ritsumeikan. Co-creador y director emérito del Kyoto Museum for World Peace (Museo Kyoto para la Paz Mundial) de la Universidad de Ritsumeikan. Miembro de la junta directiva de la Asociación para el Estudio de la Paz en Japón, presidente del Comité Organizador de la Reunión del Memorial Haiku de la bomba atómica, y* ***representante del Proyecto Mensaje del artículo 9 de la Constitución Japonesa, que decreta la renuncia a la guerra o el no-reconocimiento del derecho soberano de beligerancia de la nación japonesa, amparada en el preámbulo de su constitución: «Nosotros, el pueblo japonés, deseamos la paz para todos los tiempos y somos profundamente conscientes de los altos ideales que controlan las relaciones humanas y hemos determinado preservar nuestra seguridad y existencia, confiando en la justicia y la fe de la pueblos del mundo amantes de la paz».*** *Es asimismo miembro activo de la Asociación de Museos japoneses por la Paz y de la Red Internacional de Museos por la Paz y en 1998 y 2008 organiza la tercera y la sexta Conferencia Internacional de Museos de la Paz en Japón. Desde el terrible desastre de Fukushima, se encuentra completamente volcado en el trabajo de concienciación de lo ocurrido allí y en sus efectos entre las personas del lugar.*



http://www.ecopeace.pe.kr/files/attach/images/1968/016/001/ffc4fab8a303d4c4f27722f3ab336676.JPG




## gizadia • humanidad

Linder-Limmerren jaio zen (gaur egungo Hannover), orduko Inperio Germanikoan, 1906an, eta New Yorken hil zen, 1975ean. Jatorri juduko familia batekoa zen, eta Frantziara ihes egin zuen, 1933tik 1935era bitartean arrazaren araberako bereizkeria-legeetatik ihes egiteko. 1941ean, naziek Frantzia okupatu zutenean, Estatu Batuetara abiatu zen. School for Social Research (Gizarte Pentsamenduaren Eskola) sortu zuen han (egoitza New Yorken zuen), eta zenbait erakundetan aritu zen lanean. Halaber, hainbat unibertsitatetan ibili zen irakasle. Haren obrek boterearen, politikaren, zuzeneko demokraziaren, autoritatearen eta totalitarismoaren izaera dute aztergai, eta eragin sakona dute giza eskubideen aldeko mugimenduan. Totalitarismoaz eginiko teoria (Theorie der totalen Herrschaft 'Totalitarismoaren oinarriak') oinarrizko obra da filosofia politikoan. Hor jasotzen dira kontzeptu hori, antisemitismoaren sustraiak eta gizalegerik gabeko sistema maltzurren antidotoak eta prebentzioa. Gainera, filosofia existentzialaz eginiko lanek eta eztabaida politiko librearen aldarrikapenak eragin handia dute eztabaida garaikideetan. **Iraultza, askatasuna eta Batzordeen Sistema (Council System) dira egile honen filosofia politikoaren hiru gai garrantzitsu, gizarte zibilean eztabaidatzeko. Haren ustez, iraultza da ekintza politiko gorena, eta askatasuna da iraultzaren helburu nagusia. Batzordeen Sistemak, bada, askatasun hori erakundetzen eta zaintzen du.**

*Nace en Linden-Limmer (hoy Hannover) en el entonces llamado Imperio Germánico, en el año 1906, y muere en Nueva York, en 1975. Perteneciente a una familia de origen judío, escapa a Francia huyendo de la aplicación de las leyes de segregación racial entre los años 1933 y 1935. En 1941, siendo Francia ocupada por los nazis, emigra a los Estados Unidos. Allá funda la School for Social Research (Escuela de Pensamiento Social), con sede en Nueva York, y trabaja en varias organizaciones además de impartir clases en diversas universidades. Sus obras tratan de la naturaleza del poder, de la política y la democracia directa, de la autoridad y el totalitarismo, y ejercen honda influencia en el movimiento a favor de los derechos humanos. Su teoría del totalitarismo (Theorie der totalen Herrschaft, Los orígenes del totalitarismo) es una obra básica de la filosofía política, en la que se recoge este concepto, así como las raíces del antisemitismo y también los antídotos y la prevención de sistemas inhumanos y perversos. Además, sus trabajos sobre filosofía existencial y su reivindicación de la discusión política libre ejercen gran influencia en los debates contemporáneos.* ***La revolución, la libertad y el Sistema de Consejos (Council System) son tres temas de la filosofía política de esta autora relevantes para la discusión en el seno de la sociedad civil. Para ella la revolución es la acción política por excelencia y la libertad, el objetivo último de la revolución, siendo el Sistema de Consejos el que institucionaliza y preserva esta libertad.***

http://www.thenation.com/sites/default/files/hannah_arendt_ap_img.jpg



# Elise Boulding

gizadia • humanidad

Oslon jaio zen (Norvegia), 1920an, baina, hiru urte zituela, bere familia Estatu Batuetara abiatu zen. Han egon zen harik eta 2010ean hil zen arte. Bigarren Mundu Gerrak iraun artean eta ondoren, bakearen aldeko jardueretan aritu zen, eta Lagunen Elkarte Erlijiosoan sartu zen (ezagunagoa da “Kuakeroak” –Quakers– izenarekin). 60ko hamarkadan, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga (Women’s International League for Peace and Freedom, WILPF) zuzendu zuen, eta International Peace Research Association elkartearen (IPRA) sortzaileetako bat izan zen. 1969an Soziologian doktoratu zen, emakumeen rolen modernizazioaren ondorioei buruzko lan batekin. Ikertzen jarraitu zuen, bakearen aldeko aktibismoa eredu hartuta. 1985etik irakasle emeritua da Coloradoko Unibertsitatean. Hainbat sari jaso ditu bakearen alde eginiko lanagatik, eta 1990ean Nobel Saria irabazteko izangai izan zen. Haren ustez, «familia da historia egiteko praktika-eremua». **2000. urtean, Massachusettseko Peace Abbey erakundeak Courage of Conscience saria eman zion.**

*Nace en Oslo (Noruega) en 1920, aunque con tres años su familia emigra a los Estados Unidos donde vive hasta su fallecimiento en 2010. Durante y después de la Segunda Guerra Mundial se involucra en actividades pacifistas e ingresa en La Sociedad Religiosa de los Amigos, más conocida como los Cuáqueros (Quakers). En los años 60 preside la Liga Internacional de Mujeres por la Paz y la Libertad (Women’s International League for Peace and Freedom, WILPF) y participa en la fundación del International Peace Research Association (IPRA). En 1969 se doctora en Sociología con un trabajo sobre los efectos de la modernización en los roles de las mujeres. Continúa su faceta como investigadora con el activismo pacifista como referente. Desde 1985 es profesora emérita de la Universidad de Colorado. Recibe numerosos premios por su trabajo en favor de la paz y es nominada al Nobel en 1990. Para ella, la familia es el «campo de prácticas para hacer historia».* ***En 2000 la Peace Abbey, de Massachusetts, le otorga el premio Courage of Conscience.***



http://static01.nyt.com/images/2010/07/02/us/02boulding_art/02boulding_art-popup.jpg




## gizadia • humanidad

Pragan jaio zen, 1843an, Kinský-ko kondesa gisa, Austriako aristokrazian, eta Vienan hil zen 1914an. **1886an labur aritu zen lanean Parisen, Alfred Nobel suediar kimikariaren idazkari, eta haren adiskide handi egin zen.** 1887an International Arbitration and Peace Association elkartea ezagutu zuen: gerraren aurkako Londresko taldea izan zen, helburu zuena Nazioarteko Arbitratze Gortea sortzea, nazioen arteko gatazkak konpondu eta gerrak saiheste aldera. Talde horrekin eta bakearen aldeko Europako beste batzuekin izandako harremanak oinarri hartuta, *Das Maschinenzeitalter* saiakera eta *Die Waffen nieder!* (Behera armak!) nobela idatzi zituen, biak ere 1889an. Azken liburu horretako emakume protagonistak gerraren izugarrikeria guztiak bizi ditu, eta egilearen beraren bakearen aldeko aktibismoa eta munduan gerraren aurka dagoen mugimenduarena azaltzen ditu. **Alfred Nobel konbentzitzen du bakearen eta arbitratzearen alde egin dezan, eta suediar asmatzaileak bere fortunaren bosten bat uzten du «nazioen arteko senidetasunaren, armada iraunkorrak desagertzearen edo murriztearen eta bake-biltzarrak prestatzearen eta zabaltzearen alde gehien eta ondoen lan egiten duen» pertsonaren jarduna saritzeko.** 1899an, Hagako Bakearen Lehenengo Biltzarrean, parte hartu zuen emakume bakarra izanik, Arbitratze Gorte Iraunkorra sortzea sustatu zuen, eta handik jaio zen Nazioarteko Justizia Gortea (Nazio Batuen organo judizial nagusia). **Bakearen Nobel Saria 1901ean eman zen lehenengoz, eta aktibista noblea izan zen sari hori jaso zuen lehenbiziko emakumea, 1905eko deialdian. Saria lortu ondoren, zuzenean esku hartu zuen Alemania eta Erresuma Batua elkarrekin ondo moldatzeko negoziazioan. 1907an Hagako Biltzarraren beste deialdi batean parte hartu zuen, eta 1908an Londresko Bakea Biltzarrean defendatu zuen Europa bateratzearen ideia, gerra saihesteko tresna eraginkorrena zela aldarrikatuz.** Europa batzearen aldeko nahiak bete zuen 1913an Hagan emandako diskurtso berria, eta "bakearen aldeko mugimenduko jeneral gorena" aitorpena egin zitzaion. Gerra ezin saihestuta, Lehenengo Mundu Gerra piztu baino bi hilabete lehenago hil zen, baina bakearen aldeko nazioarteko mugimendu sendoa eraikitzeko oinarriak ezarri zituen.

*Nace en Praga en 1843 como condesa Kinský en el seno de la aristocracia austriaca, y fallece en Viena en 1914.* ***En 1886 trabaja brevemente en París como secretaria del químico sueco Alfred Nobel, con quien desarrolla una intensa amistad.*** *En 1887 conoce la International Arbitration and Peace Association agrupación antibelicista londinense cuyo objetivo es establecer una Corte Internacional de Arbitraje encargada de resolver los conflictos entre las naciones con el fin de evitar que lleguen a la conflagración bélica. Del contacto con éste y otros grupos pacifistas europeos escribe el ensayo* Das Maschinenzeitalter *y la novela* Die Waffen nieder! *("¡Abajo las Armas!"), ambos de 1889. Este último libro, protagonizado por una mujer que se ve afectada por todos los horrores de la guerra, inspira en lo sucesivo el activismo por la paz de la propia autora y del movimiento antibelicista mundial.* ***Convence a Alfred Nobel para que éste se implique a favor de la paz y del arbitraje y el inventor sueco deja destinada una quinta parte de su fortuna a galardonar a aquella persona que «trabaje más y mejor en pro de la fraternidad entre las naciones, a favor de la abolición o reducción de los ejércitos permanentes, y en la formación y propagación de Congresos de Paz».*** *En 1899, durante la primera Conferencia de Paz de La Haya y siendo la única mujer participante, promueve la creación de la Corte Permanente de Arbitraje, origen de la Corte Internacional de Justicia, el principal órgano judicial de Naciones Unidas.* ***El premio Nobel de la Paz se otorga por vez primera en 1901 y la noble activista es la primera mujer en recibirlo en la convocatoria de 1905. Tras la obtención del galardón, se implica directamente en las negociaciones encaminadas a un mayor entendimiento entre Alemania y el Reino Unido. En 1907 participa en una nueva convocatoria de la Conferencia de La Haya y en 1908 defiende en el Congreso de la Paz, celebrado en Londres, la idea de la unificación de Europa como instrumento más eficaz para evitar la guerra.*** *Su anhelo europeísta ocupa su nuevo discurso en La Haya, en 1913, y es reconocida como Generalísima del movimiento por la paz. No puede evitar la contienda y muere dos meses antes del estallido de la Primera Guerra Mundial, pero crea las bases para la construcción de un movimiento pacifista internacional sólido.*

http://www.tagesschau.de/multimedia/bilder/suttner100~_v-videowebl.jpg



# Betty Reardon

## gizadia • humanidad

New York estatuan jaio zen (AEB), 1929an. Intelektuala eta bakearen aldeko aktibista izan zen. Peace Education Center (Bakerako Hezkuntza Zentroa) guneko eta Columbia Unibertsitateko Peace Education Graduate Degree Concentration (Bakerako Hezkuntzako Graduondokoa) graduondokoaren sortzaile eta zuzendari izan da. Liderra da bakerako hezkuntzan, eta aditua giza eskubideen hezkuntzan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arloan. Bakearen inguruan ikertzen hasi ziren emakumeen belaunaldiko kide da, Elise Bouldingekin eta Cynthia Enloerekin batera. Guztira 300 bat lan argitaratu ditu, besteak beste honako arlo hauetan: bake-azterlanak, bakerako hezkuntza, giza eskubideak, generoa eta ekologia. Bakerako Nazioarteko Hezkuntza Institutua sortu zuen (IIPE). Erakunde hori 16 herrialdetan aritu da lanean, 100 bat herrialdetako hezitzaileekin. Bakeaz duen ikuspegiak feminismoaren eragin sakona du. Haren ustez, bizitza harremanen sare interdependentea da, eta horren barruan ezinbestekoa da bake positiboa edo «benetako bakea». Era berean, «gerra-sistemaren abolizioa eta justizia eta erkidego zibiko globalen ezarpena» ere bada. Halaber, **Bakerako Munduko Hezkuntza Kanpaina sortu eta zuzendu zuen, Hague Appeal for Peace (Hagaren Bakerako Deialdia) erakundearentzat: gerrak amaitzea eta bakea giza eskubide gisa aitortzea sustatzen duten erakunde eta norbanakoen nazioarteko sarea da.**

*Nace en el Estado de Nueva York (EE.UU.) en 1929. Intelectual y activista por la paz. Fundadora y directora del Peace Education Center (Centro de Educación para la paz) y del Peace Education Graduate Degree Concentration (Postgrado de Educación para la Paz) de la Universidad de Columbia. Líder de la educación para la paz y experta en la educación en derechos humanos en Educación Primaria y Secundaria. Forma parte de la generación de mujeres pioneras en estudios de paz junto con Elise Boulding y Cynthia Enloe. Sus publicaciones comprenden alrededor de 300 trabajos en áreas como estudios de paz, educación para la paz, derechos humanos, género y ecología. Funda el Instituto Internacional de Educación para la Paz (IIPE), institución que ha trabajado en 16 países con educadores procedentes de unos 100 países. Su concepción de la paz está profundamente influenciada por el feminismo. Para ella la vida se entiende como una red interdependiente de las relaciones dentro de la cual es imprescindible la paz positiva o, más bien, la «paz auténtica» que es a su vez concebida como «la abolición del sistema de guerra y el establecimiento de una justicia y una comunidad cívica globales». Asimismo,* ***funda y dirige la Campaña Mundial de Educación para la Paz para el Hague Appeal for Peace (Llamamiento por la Paz de La Haya), red internacional de organizaciones e individuos que promueven la abolición de la guerra y la declaración de la paz como un derecho humano.***

http://ehf-public.s3-website-us-east-1.amazonaws.com/ehf-images/news/image/11/14c475e05845ad35585fe4fd1dca5d7d.png



# Cora Weiss



gizadia • humanidad

New York estatuan jaio zen (AEB), 1934an. Bakezalea, feminista eta aktibista izan zen, eta bizitza osoa eman zuen bakearen alde lan egiten. Women Strike for Peaceko (Bakearen aldeko Emakumeen Greba) kide da hasiera-hasieratik, eta erakunde hori nagusi izan zen Vietnamgo gerraren aurkako mugimenduan. 70eko hamarkadan, New Yorkeko itzal handiko Riverside elizaren Desarme Programako zuzendari izan zen, eta parte-hartze aktiboa izan zuen Politika Nuklear Zentzuduna lortzeko Batzordean (Committee for a SANE Nuclear Policy) eta Arma Nuklearrak Izozteko Kanpainan (Nuclear Weapons Freeze Campaign). Biak batuta, Peace Action sortu zen. Berrikiago, Nazio Batuen Segurtasun Batzordearen 1325 ebazpena* onesteko lanetan esku hartu zuen: Batzordearen lehenengo ebazpena da, non gatazka armatuek emakumeen artean duten proportziorik gabeko eragin singularra aztertu baitzen. **Gaur egun Hague Appeal for Peace (Hagaren Bakearen aldeko Deialdia) erakundeko zuzendari da, baita International Peace Bureaukoa (Bakerako Nazioarteko Bulegoa) ere.** Haren hitzak dira hauek: «Bakarrik amesten dugunean, ametsa besterik ez da. Baina, elkarrekin amets egiten dugunean, ametsa errealitate bihur daiteke».

*Ebazpen horretan azpimarratu egiten da zer-nolako garrantzia duen emakumeek berdintasunez parte hartzea eta esku -hartze betea izatea gatazken prebentzioan eta konponbidean, eta bakea sendotzeko eta mantentzeko jardunean.

*Nace en el Estado de Nueva York (EE.UU.) en 1934. Pacifista, feminista y activista, dedica toda su vida a trabajar por la paz. Miembro del Women Strike for Peace (Huelga de Mujeres por la Paz) desde sus inicios, organización líder en el movimiento contra la Guerra de Vietnam. Durante los años 70 dirige el Programa de Desarme de la influyente Iglesia Riverside de Nueva York, desde donde participa activamente en el Comité para una Política Nuclear Sensata (Committee for a SANE Nuclear Policy) y en la Campaña para la Congelación de Armas Nucleares (Nuclear Weapons Freeze Campaign), fusionadas como Peace Action. Más recientemente se implica en la aprobación de la Resolución 1325* del Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas –primera resolución del Consejo en que se trató el efecto desproporcionado y singular de los conflictos armados en las mujeres—.* ***Actualmente es presidenta del Hague Appeal for Peace (Llamamiento por la Paz de La Haya) y del International Peace Bureau (Oficina Internacional por la Paz).*** *Sus palabras: «Cuando soñamos solos, es nada más que un sueño. Pero cuando soñamos juntos el sueño se puede convertir en realidad».*

**En esta resolución se subraya la importancia de que las mujeres participen, en pie de igualdad, e intervengan plenamente en la prevención y solución de los conflictos, la consolidación y el mantenimiento de la paz.*



# Ryan Hreljac

## amalurra • madre tierra

Kemptvillen jaio zen (Ontario, Kanada), 1991n. 6 urte zituela, maistrari entzun zion Afrikan haur gehien hiltzen zuen eragile nagusia ez zela gosea, uste izan den bezala, ezpada egarria; izan ere, ez dago ur garbia lortzerik. Harriturik, berak nahi zuenean eta nahi zuen bezala lor zezakeenez ura, maistrari galdetu zion zenbat balioko zukeen haur haiei ura eramateak. Maistrak Watercan-i buruz hitz egin zion orduan (Afrikan putzuak eraikitzen dihardUen erakundea da), eta esan zion putzu bat eraikitzeak 70 bat dolar balio zuela. Haurrak amari eskatu zion dolar bateko ordainsariak jasotzeko moduko zereginak eman ziezazkiola, zenbateko hori lortzeko. Alabaina, dirua bildu ondoren, zuzendariak azaldu zion 70 dolarrekin eskuko punpa bat besterik ezin zela erosi, eta 2.000 behar zirela ur-putzu bat zulatzeko. Haurrak ez zuen amore eman, eta erakundea bera (finantzazioaren erdia eman zuen), bere familia eta komunitate osoa mugiaraztea lortu zuen, falta zen dirua lortzeko. 1999ko urtarrilean eraiki zen “Ryanen putzua”, lehenengoa, Angoloko Lehen Hezkuntzako Ikastetxean; zehazki, Otwal-en eraiki zen (Uganda), hiesak eta lehorteak zigortutako eremuan. Baina 7 urteko haurrak ez zion nahiko iritzi horri, eta 25.000 dolar lortzeko moduaren bila hasi zen, zulagailu mugikor bat erosteko. Dokumental bat egin zen berari buruz, eta, horren bidez, Kanada guztiko dohaintzak lortu ziren. **2001ean Ryan’s Well Fundazioa (“Ryanen putzua”) sortu zuen. Gaur egun, Fundazioak ur edangarria lortzeko 749 proiektu eta 992 komun eraikitzen lagundu du. Horien bidez, ur purua eta osasun-baldintza hobeak ematen zaizkie 789.907 pertsonari. Fundazioa, gainera, 30 herrialdetik gorako 650 eskolekin baino gehiagorekin aritzen da lanean. Urterik urte, bere mezua partekatzen du 120.000 pertsonarekin baino gehiagorekin (bereziki, gazteekin), hitzartutako hitzaldien bidez.**

*Nace en Kemptville (Ontario, Canadá) en 1991. Con 6 años de edad, escucha a su maestra que en África, la mayor causa de mortandad infantil no es el hambre como suele pensarse, sino la sed, por falta de acceso a agua limpia. Impactado, dado que él podía acceder al agua corriente cuando y cuanto quisiera, pregunta a su maestra cuánto costaría llevarles agua a aquellos niños. La maestra le habla entonces de Watercan, una organización que se dedica a construir pozos en África, y le dice que construir un pequeño pozo puede costar unos 70 dólares. El niño pide a su madre que le encargue tareas a cambio de las cuales recibir pagas de un dólar con las que reunir esa cantidad. Pero una vez reúne el dinero, la directora le comunica que con 70 dólares sólo se puede comprar una bomba de mano y que se necesitan 2.000 para perforar un pozo de agua. El pequeño no desiste y consigue movilizar a la propia institución, que se encarga de la mitad de la financiación, y a su familia y a toda la comunidad para reunir el resto del dinero. En enero de 1999 se construye el primer “Pozo de Ryan” en la Escuela Primaria de Angolo, en Otwal (Uganda), lugar castigado por el SIDA y la sequía. Pero el niño de 7 años no se queda conforme y busca la manera de reunir 25.000 dólares para comprar un taladro móvil. Se le dedica un documental que, en su emisión, provoca donaciones de todo Canadá.* ***En 2001 crea la Fundación Ryan’s Well (“Pozo de Ryan”). A día de hoy la Fundación ha participado en la construcción de 749 proyectos de agua potable y 992 letrinas que proveen agua pura y mejores condiciones sanitarias a 789.907 personas. La Fundación colabora además con más de 650 escuelas en 30 países. Y cada año, comparte su mensaje con más de 120.000 personas, especialmente jóvenes, a través de charlas concertadas.***



http://globaldignity.ca/wp-content/uploads/2013/05/Ryan_Hreljac_headshot.jpg

# Vandana Shiva



## amalurra • madre tierra

Dehradun-en jaio zen, Uttaranchal-en (Uttar Pradesh zena), Indian, 1952an. Bere gurasoen lanak –aita basozaina zen, eta ama abeltzaina–, biak Gandhiren jarraitzaile izanik, bere bokazio ekologistan eta feministan eragin zuen. 1973an Chipko mugimendu ekofeministan parte hartu zuen, eta bizimodu tradizionalaren sistemari (erregaia, bazka, habitata) eusten dioten tokiko zuhaitzak moztearen aurka egin zuen, baita Garhwal-eko Himalayetako eukaliptoaren eta pinuaren landatze komertzial eta higitzaileen aurka ere. 1979an Filosofian doktoratu zen Western Ontarioko Unibertsitatean. 1988an argitaratu zuen lehenbiziko liburua, *Staying alive*: ekofeminismoaren oinarria da. 1991n Navdanya (“Bederatzi Uzta”) mugimendua bultzatu zuen, nekazaritza ekologikoa zabaltzeko, bioaniztasuna aztertzeko eta mantentzeko, ekofeminismoa sustatzeko edo konpromiso demokratikoa biziberritzeko. Navdanyan 70.000 nekazarik baino gehiagok parte hartzen dute (gehienak emakumeak dira), eta jatorrizko hazien 111 banku sortu ditu 17 estatutan; orobat, 2.000 arroz aldaera baino gehiago kontserbatzen lagundu du, Nim zuhaitzaren, Basmati arrozaren eta gariaren biopirateria borrokatu du, eta 5 milioi nekazari mugiarazi ditu Merkataritzako Tarifa Batasun Nagusiaren (GATT) aurka. Satyagraha oinarri hartuta (Gandhiren indarkeriarik gabeko erresistentzia), emakume nekazariek tokiko haziak gordetzea eta ereitea sustatzen aritu zen, espezieari eusteko. **1993an Right Livelihood Saria (Nobel Sari alternatiboa) eman zioten, eta Nazio Batuek ere aitorpena adierazi zioten.** Partaidetza aktiboa izan zuen Globalizazioaren inguruko Nazioarteko Foroan (IFG), Women’s Environment & Development Organization (WEDO) erakundean, Third World Network (TWN) sarean eta Munduaren Etorkizuneko Batzordean (World Future Council). Aktibista honek lurraren demokrazia proposatzen du kapitalismoa ez bestelako aukera gisa. **2004an Shiva Bija Vidyapeeth proiektuari ekin zion: “Lurraren Unibertsitatea” da, bere sorterri Doon Valley-n bizimodu iraunkorra lortzeko nazioarteko ikastegia.** Gaur egun Bhutango Gobernuarentzat dihardu lanean, lehenengo herrialde erabat organikoa izatea lortzeko.

*Nace en Dehradun, Uttaranchal (antiguo Uttar Pradesh), India, en 1952. El trabajo de su padre —guardabosques— y de su madre —granjera—, ambos seguidores de Gandhi, marca su vocación ecologista y feminista. En 1973 participa en el movimiento ecofeminista Chipko contra la tala de los árboles autóctonos que mantienen el sistema tradicional de vida (combustible, forraje, hábitat) y las plantaciones comerciales y erosivas de eucalipto y pino en los Himalayas de Garhwal. En 1979 se doctora en Filosofía por la Universidad de Western Ontario. En 1988 publica su primer libro,* Staying Alive, *base del ecofeminismo. En 1991 impulsa el movimiento Navdanya (“Nueve Cultivos”) para difusión de la agricultura ecológica, el estudio y mantenimiento de la biodiversidad, fomento del ecofeminismo o regeneración del compromiso democrático. Navdanya, participado por más de 70.000 personas agricultoras (mujeres en su mayoría), ha creado 111 bancos de semillas nativas en 17 estados, ha contribuido a la conservación de más de 2000 variedades de arroz; ha combatido la biopiratería del árbol de Nim, del arroz Basmati y del trigo; y ha movilizado 5 millones de campesinos contra la Unión General de Tarifas de Comercio (GATT). Inspirada por la Satyagraha (resistencia noviolenta de Gandhi) ella fomenta que las mujeres agricultoras guarden y planten las semillas nativas para preservar la especie.* ***En 1993 es galardonada con el Premio Right Livelihood (Premio Nobel Alternativo) y reconocida también por Naciones Unidas.*** *Participa activamente en el Foro Internacional sobre Globalización (IFG), en la Women’s Environment & Development Organization (WEDO), en la Third World Network (TWN) y en el Consejo por el Futuro del Mundo (World Future Council). La activista propone la democracia de la tierra como alternativa al capitalismo.* ***En 2004 emprende el proyecto Shiva Bija Vidyapeeth, la “Universidad de la Tierra”, un colegio internacional para una vida sostenible en Doon Valley, su región natal.*** *Y actualmente trabaja para el Gobierno de Bután en el propósito de ser el primer país completamente orgánico.*

http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/9/98/Dr._Vandana_Shiva_DS.jpg

# Kumi Naidoo




## amalurra • madre tierra

Durbanen jaio zen (Hegoafrika), 1965ean. 70eko eta 80ko hamarkadan apartheidaren aurkako borrokan hasi zen, Helping Hand gazteen erakundearen bidez. Jatorria Indian izan arren, Hegoafrikako bizilagun beltzekin identifikatu zen. Apartheidaren aurkako konpromisoak klandestinitatera eraman zuen, eta, hortik, Ingalaterrara erbesteratu zen. Han, Soziologia Politikoan doktoratu zen Oxfordeko Unibertsitatean: titulu hori lortu zuen “lehenbiziko aktibista beltza” izan zen. 1990ean Nelson Mandela kartzelatik atera ondoren, Hegoafrikara itzuli zen, Afrikako Kongresu Nazionala legeztatzen laguntzeko, helduak alfabetatzeko kanpainak zuzentzeko eta hauteskundeetako hezkuntza-ahalegina egiteko. Hegoafrikako GKE Nazionalaren Koalizioaren (SANGOCO) zuzendari sortzaile exekutibo izendatu zuten. 1998tik 2008ra bitartean Civicus-eko (Herritarren Partaidetzarako Munduko Aliantza) idazkari nagusi eta zuzendari izan zen, Johannesburgen. Halaber, Global Call to Action Against Poverty (Pobreziaren aurka Jarduteko Munduko Deia) erakundeko presidente sortzaile ere izan zen. 2009an bere egin zuen Greenpeaceren nazioarteko zuzendaritza exekutiboa, eta ikuspegi zabalagoa eman zuen ekologismoaz, ingurumen-justizia, emakumeen eskubideak eta giza eskubideak lotuz. **Ozeano Artikoan Shell-en eta Gazprom-en aurkako desobedientzia zibil bakezaleko ekintzetan parte hartu zuen.** 2011ko ekainean, Greenpeaceren “Go Beyond Oil” kanpainako kide gisa, Cairn Energy-ren petrolio-plataforma bat eskalatu zuen, eta zenbait egun eman zituen atxilo, hori dela eta, Groenlandian. Ondoren, Danimarkara deportatu eta Herbehereetara eraman zuten. Han geratu zen aske. 14 hilabeteren buruan, 15 orduz okupatu zuen, boluntarioen talde batekin, Gazprom-en Prirazlomnaya petrolio-plataforma. **Halaber, Munduko Foru Ekonomikoan aldaketa sistemikoak sartzen saiatu zen, eta sarri bertaratu zen Nazio Batuek klimaren inguruan eginiko negoziazioetara.** Haren ahaleginen helburua da energiaren sektorea kontzientziatzea energia berriztagarriak besterik ez dezaten erabili, klima-aldaketa katastrofikoa saihesteko. Azkenaldian “Klimaren aldeko Ekintzen Mundu Deia” zuzendu du (Global Call for Climate Action / Tcktcktck.org): ingurumen-aktibistak, kooperatzaileak, erlijiosoak, giza eskubideen aldekoak, sindikatuetakoak, zientzialariak eta bestelakoak biltzen ditu klimari buruzko negoziazioen inguruan.

*Nace en Durban (Sudáfrica) en 1965. Durante los años 70 y 80 se implica en la lucha contra el Apartheid a través de la Organización Juvenil Helping Hands. Aunque de origen indio, se identifica con el pueblo negro surafricano. Su compromiso anti-apartheid le lleva a la clandestinidad y de ahí, al exilio en Inglaterra. Allá se doctora en Sociología Política por la Universidad de Oxford, siendo el “primer activista negro” en lograr este título. Tras la excarcelación de Nelson Mandela en 1990, regresa a Sudáfrica para trabajar en la legalización del Congreso Nacional Africano y dirigir las campañas de alfabetización de adultos y los esfuerzos de educación electoral. Es nombrado director ejecutivo fundador de la Coalición de ONG Nacional de Sudáfrica (SANGOCO). De 1998 a 2008, es Secretario General y Director Ejecutivo de Civicus (Alianza Mundial para la Participación Ciudadana) en Johannesburgo. Es también presidente fundador de la Global Call to Action Against Poverty (“Llamada Mundial a la Acción contra la Pobreza”). En 2009 asume la dirección ejecutiva internacional de Greenpeace, aportando una visión más amplia del ecologismo, interconectando la justicia ambiental, los derechos de las mujeres y los derechos humanos en general.* ***Participa en actos de desobediencia civil pacífica en el Océano Ártico contra Shell y Gazprom.*** *En junio de 2011, como parte de la campaña “Go Beyond Oil” de Greenpeace, escala una plataforma petrolera propiedad de Cairn Energy, acción por la cual es arrestado durante varios días en Groenlandia, deportado a Dinamarca y conducido a los Países Bajos, donde es liberado. Y 14 meses después ocupa durante 15 horas, junto con un grupo de voluntarios, la plataforma petrolera Prirazlomnaya de Gazprom.* ***Trata asimismo de introducir cambios sistémicos en el Foro Económico Mundial y asiste regularmente a las negociaciones sobre el clima de las Naciones Unidas.*** *Sus esfuerzos se centran en concienciar al sector energético en el uso exclusivo de renovables con el fin de evitar un cambio climático catastrófico. Recientemente dirige el Llamado Mundial a la Acción por el Clima (Global Call for Climate Action / Tcktcktck.org), que reúne a activistas medioambientales, cooperantes, religiosos, pro-derechos humanos, sindicales, científicos y demás en torno a las negociaciones sobre el clima.*



http://globalpowershift.org/wp-content/uploads/2013/06/kumi-naidoo-rainbow-warrior.jpg




## amalurra • madre tierra

1940an jaio zen, Ihithe herrian, Nyeri distrituan, Kenyako koloniako mendilerro nagusian, eta 2011n hil zen. 1960an, Kenyako beste gazte batzuekin batera, AEBko Kennedy Airlift programan ikasteko hautatu zuten. Han, Zientzietan graduatu zen Benedictine College eskolan (1964), eta Biologia Zientzien Masterra amaitu zuen Pittsburgh-eko Unibertsitatean. 1971n, Afrikako Ekialdeko emakumeen artean lehenengoa izan zen Albaitaritza Anatomiako doktoretza lortzen, Nairobiko Unibertsitatean. Unibertsitate hartan eginiko lanaz gain, zenbait erakunde zibiletan ere aritu zen. 1973an Kenyako Gurutze Gorriaren Sozietatearen Nairobiko adarra zuzendu zuen, Ingurumen Loturako Nazioarteko Zentroa ezartzen eta zuzentzen parte hartu zuen (Environment Liaison Center International), eta UNEP/PNUMako (Ingurumenaren aldeko Nazio Batuen Programa) gobernu arteko ingurumen-mahaiaren aurreko gizarte zibilaren interfazean aritu zen. Orobat, Kenyako Emakumeen Batzorde Nazionalean (NCWK) sartu zen. Organismo horietan arituta, jabetu zen Kenyak zituen arazo gehienen sustraia ingurumenaren hondatzea zela. 1977an, NCWK onetsi zenean, “Save the Land Harambee” kanpaina sustatu zuen (Salba dezagun lurraldea denok batera). Handik, Kenyako emakumeak animatu zituen tokiko zuhaitzen haztegiak sortzera herrialde guztian; horretarako, hurbileko basoetan bilatu zituzten tokiko zuhaitzak ereiteko haziak. Horrela sortu zen **Gerriko Berdearen Mugimendua (The Green Belt Movement): 30 milioi zuhaitz baino gehiago erein zituzten herrialde guztian, lurzoruaren higadura saihesteko eta, horrela, emakume nekazarien bizi-kalitatea hobetzeko. 1986an, PNUMAren finantzazioarekin, Gerriko Berdearen Sare Panafrikarra sortu zen: Afrikako 15 herrialdetako 45 ordezkarik hiru urtez bidaiatu zuten Kenyara, ikaste aldera nola konfiguratu desertifikazioaren, baso-soiltzearen, uraren krisiaren eta landa-giroko gosearen aurkako ingurumen-programak.** Bere konpromisoa dela eta, “zuhaitz-emakume” deitu zioten. 1989an Nayrobiko Uhuru parkea salbatu zuen, Moi presidentearen kideek sustatutako hirigintza-konplexua eraikitzea geldiarazi baitzuen. 2004an Bakearen Nobel Saria irabazi zuen, «garapen iraunkorrari, demokraziari eta bakeari eginiko ekarpenengatik». Bakearen Nobel Saria irabazi duen lehenengo emakume afrikarra da. Haren hitzak dira hauek: «Harambee da nire oihu gogokoena. ‘Denok batera’ esan nahi du».

*Nace en 1940 en el pueblo de Ihithe, Distrito de Nyeri, en la sierra central de la colonia de Kenia, y fallece en 2011. En 1960 es seleccionada, junto a otras y otros jóvenes keniatas, dentro del programa Kennedy Airlift para estudiar en los EE.UU. Allá se gradúa en Ciencias en el Benedictine College (1964) y completa su Máster en Ciencias Biológicas con la Universidad de Pittsburgh. En 1971, se convierte en la primera mujer de África oriental en recibir un doctorado en Anatomía Veterinaria por la Universidad de Nairobi. Además de su trabajo en ésta universidad, se involucra en diferentes organizaciones civiles. En 1973 dirige la rama de Nairobi en la Sociedad de la Cruz Roja de Kenia; participa en el establecimiento y en la presidencia del Centro Internacional de Enlace Ambiental (Environment Liaison Center International), interfaz de la sociedad civil ante la mesa ambiental intergubernamental de la UNEP/PNUMA (Programa de las Naciones Unidas para el Medio Ambiente); e ingresa en el Consejo Nacional de Mujeres de Kenia (NCWK). Desde estos organismos toma conciencia de que la raíz de la mayoría de los problemas de Kenia es la degradación ambiental. En 1977, con la aprobación del NCWK, promueve la campaña “Save the Land Harambee” (“Salvemos el territorio, tod@s a una”). De ahí anima a las mujeres de Kenia a crear viveros de árboles autóctonos en todo el país, buscando en los bosques cercanos las semillas para plantar árboles nativos de la zona. Crea así* ***el Movimiento del Cinturón Verde (The Green Belt Movement), responsable de la plantación de más de 30 millones de árboles por todo el país, para evitar la erosión del suelo, y así mejorar la calidad de vida de las mujeres agricultoras. En 1986, con la financiación del PNUMA, se funda la Red Panafricana del Cinturón Verde: 45 representantes de 15 países africanos viajan durante tres años a Kenia para aprender cómo configurar programas ambientales contra la desertificación, la deforestación, la crisis del agua y el hambre rural.*** *Su compromiso le merece el apelativo de “Mujer Árbol”. En 1989 salva el Parque Uhuru de Nairobi al conseguir detener la construcción de un complejo urbanístico promovido por los asociados del presidente Moi. En 2004 recibe el Premio Nobel de la Paz por «sus contribuciones al desarrollo sostenible, a la democracia y a la paz», siendo la primera mujer africana en ganar el Nobel de la Paz. En sus palabras: «Harambee es mi grito preferido. Significa ‘tod@s a una’».*

http://takingrootfilm.com/images/Wangari-Maathai-by-Martin-Rowe.jpg




## amalurra • madre tierra

Toototobin jaio zen (Yanomami lurraldea, Brasil), 1956an. Amazoniako Yanomami herri indigenako xamana da. Portugesa ikasi zuen, Ipar Amerikako misio ebanjelikoarekin harremana izan zuela eta. Bada, hizkuntza hori ikasi zuenez, bitartekari-lanak egin zituen Brasilgo erakunde, hedabide eta bizilagunekin. Berak darama Omai-ren mezua (shaborien sortzailea; xaman edo jakintsuak dira): suntsiketa gelditzea, lur azpiko mineral-ateratzeak gelditzea eta errepideak eraikitzeko lanak etetea: «Gure lana da natura, haizea, mendiak, basoak eta animaliak babestea, eta horixe erakutsi nahi diogu jendeari». 60ko eta 70eko hamarkadetan, gurasoak galdu zituen, kanpotarren, bideetako langileen eta garinpeiroen inbasioen ondoren hartutako gaixotasunen ondorioz: malaria, tuberkulosia, hepatitisa eta elgorria. 80ko hamarkadan Brasilgo Fundação Nacional do Indio (FUNAI) gobernu-erakundearekin hasi zen lanean, Deminin, “yanomami” lurraldearen erdigunean, gobernuaren eta kontaktu gutxiko edo kontakturik gabeko herri indigenen arteko bitartekari. Bestalde, osasun-langileen yanomami herrietara joaten lagundu zien, eta lankidetza estua izan zuen besteak beste Comissão Pró-yanomami (CCPY) eta Survival International erakundeekin, Brasilgo yanomami lurraldeen osotasunaren aldeko borrokan. 1987an, legez kanpoko urre-bilatzaileek yanomami lurraldea inbaditu zutenean, babes-eremu berdea sortzen saiatu zen, eta ekimen horrek herio-mehatxuak ekarri zizkion; ordea, Nazio Batuen Ingurumen Programaren saria ere jaso zuen horregatik. Garinpeiroen inbasio berri horrek yanomamien bostena gaixotzea eta hiltzea ekarri zuen. Survival International eta Comissão Pró-yanomami (CCPY) erakundeen bidez kanpaina garrantzitsu bat zuzendu zuen, eta 1992an Brasilgo Gobernuak yanomami herriaren lur-eskubideak aitortu zituen. **2004an, Brasilgo hainbat yanomami erkidegok Hutukara erakundea eratu zuten, beren eskubideak defendatzeko eta honako arlo hauetan hezkuntza-proiektuak abiarazteko: alfabetizazioa, matematikak, geografia eta giza eskubideak.** Gaur egun zenbait herrialde bisitatzen ditu, herri indigenen eskubideak errespetatzeak duen garrantziaz eta herri horiek oihan tropikala kontserbatzeko duten funtsezko rol bakarraz kontzientzia harrarazteko, gizateriaren onerako: «Gure lurra errespetatu egin behar da. Gure lurra geure ondarea da: babesten gaituen ondarea. Lur hori geurea da, landatzeko, ehizatzeko, osasuntsu bizitzeko; geure etxea da, eta bertan emango dugu bizitza guztia».

*Nace en Toototobi (Territorio Yanomami en Brasil) en 1956. Chamán del pueblo indígena amazónico Yanomami. Aprende portugués al tener contacto con una misión evangélica norteamericana. El conocimiento de esta lengua le habilita para interactuar con las instituciones, medios y población brasileña. Él lleva el mensaje de Omai, creador de los shaboris (chamanes o sabedores), de detener la destrucción, de parar las extracciones de mineral del subsuelo, así como la construcción de carreteras: «Nuestro trabajo es proteger la naturaleza, el viento, las montañas, los bosques, los animales, y esto es lo que queremos enseñar a la gente». Durante las décadas de los 60 y 70 pierde a sus padres debido a enfermedades contraídas de la invasión de forasteros, obreros camineros y garimpeiros: malaria, tuberculosis, hepatitis y sarampión. En la década de los 80 comienza a trabajar para la organización gubernamental brasileña Fundação Nacional do Indio (FUNAI) en Demini, centro del territorio yanomami, como intermediario entre el gobierno y los pueblos indígenas apenas o nada contactados. También acompaña a los trabajadores de salud a los pueblos yanomami y trabaja en estrecha colaboración con organizaciones como la Comissão Pró-yanomami (CCPY) y Survival International en la lucha por la integridad de las tierras yanomami en Brasil. En 1987, cuando buscadores de oro ilegales invaden el territorio yanomami trata de crear una zona verde de protección, esta iniciativa le reporta amenazas de muerte, pero también un premio del Programa Medioambiental de las Naciones Unidas. Esta nueva invasión de los garimpeiros provoca la muerte por enfermedad de una quinta parte de los yanomami. Lidera una importante campaña a través de Survival International y la Comissão Pró-yanomami (CCPY) y en 1992 el gobierno brasileño reconoce los derechos a la tierra del pueblo yanomami.* ***En 2004, diferentes comunidades yanomami de Brasil establecen la organización Hutukara para defender sus derechos y emprender proyectos educativos de alfabetización, matemáticas, geografía y derechos humanos.*** *En la actualidad visita diferentes países concienciando sobre la importancia de respetar los derechos de los pueblos indígenas y su rol fundamental y único en la conservación de la selva tropical para el beneficio de la humanidad: «Nuestra tierra tiene que ser respetada. Nuestra tierra es nuestro patrimonio, un patrimonio que nos protege. Esta tierra es de nosotros para que podamos plantar, cazar, vivir saludablemente; es nuestra casa, donde viviremos durante el resto de nuestras vidas».*



http://assets.survivalinternational.org/static/lib/downloads/source/progresscankill/BRAZ-YANO-DAVI-FW-(02)-01.jpg




# amalurra • madre tierra

Bamakon jaio zen (Mali), 1947an. Caen-eko Unibertsitatean (Frantzia) ikasi, eta Psikologia Sozialean doktoratu eta Psikopatologian diplomatu zen han. Gizarte Zientzien arloko ikertzailea da, Abdijan-eko Unibertsitatean (Boli Kosta) lan egiten du, eta, gaur egun, nazioko eta nazioarteko zenbait erakunderekin dihardu. Afrikako Gizarte Foruma sortu zuen, eta PNUDen Emakumeen Partaidetza Sustatzeko Programaren eskualdeko zuzendaria da. Gainera, Nazio Batuen Garapenerako Programa koordinatzen du, eta gaur egun gizateriaren garapenerako Amadou Hampâté Bâ zentroa zuzentzen du, eta Beste Mali bat Lortzeko Foroa (FORAM) koordinatzen du. Maliko Kulturako eta Turismoko ministroa izan zen 1997 eta 2000 artean, eta kargu horretan dimisioa eman zuen, "bere hitzaren askatasunari eutsi ahal izateko". 2005eko uztailean, Prentsaren Nazioarteko Zerbitzuko Administrazio Batzarreko kide hautatu zuten. 2005eko Porto Alegreko manifestuaren 19 sinatzaileetako bat da ("Hamabi proposamen posible den beste mundu baterako"). Hainbat sari irabazi ditu; besteak beste, Kulturaren Claus Printzea Saria (Herbehereak) 2004an eta Maliko Ordena Nazionaleko komendadore izendapena 2008an. **Haren ahotsa da Afrikako intelektualen ahots nabarmenenetakoa, mundializazio liberalaren oposizioaren alternatibak bilatzeko lanetan. Mundua ibiltzeko bizi da, bere herriaren interesen alde egiteko eta Mendebalak Afrika beltzaren gainean duen dominazioa salatzeko.** Halaber, idazlea eta saiakeren egilea da.

*Nace en Bamako (Malí), en 1947. Estudia en la Universidad de Caen (Francia), donde se doctora en Psicología Social y se diploma en Psicopatología. Investigadora en Ciencias Sociales, trabaja en la Universidad de Abdijan (Costa de Marfil) y actualmente colabora con varias organizaciones nacionales e internacionales. Co-funda el Fórum Social Africano; es Directora Regional del Programa de Fomento de la Participación de la Mujer del PNUD; coordina el Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo; y en la actualidad dirige el Centro Amadou Hampâté Bâ para el desarrollo humano, y coordina el Foro para otro Malí (FORAM). Es ministra de Cultura y Turismo de Malí entre 1997 y 2000, cargo del que dimite para "poder mantener su libertad de palabra". En julio de 2005, es elegida para formar parte del Consejo de Administración del Servicio Internacional de Prensa. Es una de los 19 firmantes del Manifiesto de Porto Alegre de 2005, "Doce Propuestas para Otro Mundo Posible". Recibe numerosos galardones entre los que cabe destacar el Premio Príncipe Claus de Cultura (Países Bajos) en 2004 y el designio de comendador de la Orden Nacional de Malí, en 2008.* ***La suya es una de las voces intelectuales africanas más sobresalientes en la búsqueda de una alternativa en oposición a la mundialización liberal. Dedica su vida a recorrer el mundo para defender los intereses de su pueblo y denunciar la dominación de Occidente sobre el África negra.*** *Es además escritora y ensayista.*

http://blogs.elpais.com/.a/6a00d8341bfb1653ef019b003fbb93970d-pi

# Russell Means



## amalurra • madre tierra

1939an jaio zen, indioen Pine Ridge erreserban, Shannon konderrian (Hegoaldeko Dakota, Estatu Batuak), eta 2012an hil zen. Oglala Lakota herriaren ordezkari eta Ipar Amerikako indigenen eskubideen defendatzaile izan zen. 1968an Amerikako Indioen Mugimenduan (American Indian Movement, AIM) sartu zen, eta 1970ean erakunde horretako lehenengo zuzendari nazional izendatu zuten; erakundeak zuzeneko ekintzen aldiari ekin zion, hala nola Wonded Knee herria okupatzeari (1973). **1977an Nazio Batuekin lan egin zuen, Itun Indioen Nazioarteko Batzarraren bulegoak sortzeko.** Pine Ridge erreserban erakunde erkideak antolatzen lagundu zuen; esate baterako, KILI irrati-estazioa eta Porcupineko (Hegoaldeko Dakota) osasun-klinika.

*Nace en 1939 en la reserva india de Pine Ridge, en el condado de Shannon, Dakota del Sur, Estados Unidos, y muere en 2012. Es representante del pueblo Oglala Lakota y defensor de los derechos de los indígenas norteamericanos. En 1968 ingresa en el Movimiento Indio Americano (American Indian Movement, AIM); en 1970 es nombrado su primer director nacional y la organización inicia un período de acciones directas, como la ocupación del pueblo de Wounded Knee (1973).* ***En 1977 trabaja con las Naciones Unidas para establecer las oficinas del Consejo Internacional de Tratados Indios.*** *En la reserva de Pine Ridge colabora en la organización de las instituciones comunitarias, como la estación de radio KILI y la Clínica de Salud en Porcupine, Dakota del Sur.*

http://blogs.denverpost.com/library/files/2012/10/Russell-means-book-photo.jpg

Yolanda Kakabadse



## amalurra • madre tierra

Ekuadorren jaio zen, 1948an. Quitoko Unibertsitatean Hezkuntzaren Psikologiako ikasketak egin ondoren, ingurumen-gaiei heldu zien. Natura Fundazioa sortu zuen Quiton, eta hango zuzendari exekutibo izan zen 1979tik 1990era bitartean. Ríoko Lurraren Biltzarrean, gobernuz kanpoko erakundeen arteko lotura izan zen. 1993an Futuro Latinoamericano Fundazioa sortu zuen, eta hango zuzendari izan zen 2006ra bitartean. 1998ko abuztutik 2000. urteko urtarrilera arte Ekuadorreko Gobernuko Ingurumen ministroa izan zen. 1996tik 2004ra bitartean Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren (UICN) arduraduna izan zen. Gaur egun, 2010eko urtarriletik, **Naturaren aldeko Munduko Funtseko (World Wide Fund for Nature, WWF) burua da.**

*Nace en Ecuador en 1948. Tras realizar los estudios de psicología educativa en la Universidad de Quito, se involucra en temas ambientales. Crea la Fundación Natura en Quito y es su directora ejecutiva desde 1979 hasta 1990. Durante la Cumbre de la Tierra de Río, actúa como enlace de las ONGs. En 1993 co-crea la Fundación Futuro Latinoamericano y dirige esta organización hasta 2006. Desde agosto 1998 a enero 2000 es Ministra de Medio Ambiente en el gobierno de Ecuador. De 1996 a 2004 es responsable de la Unión Internacional para la Conservación de la Naturaleza (UICN). Y en la actualidad, desde enero de 2010,* ***preside el Fondo Mundial para la Naturaleza (World Wide Fund for Nature, WWF).***

http://src.holcimfoundation.org/img/1da89c7d-9d16-4b4d-b87b-5b84701b1903/F13_attendee_KakabadseNavarroYolanda_Ecuador.jpg

# Bakeraikileak • Constructor@s de Paz
# Peace Makers • Constructeurs de la Paix

**Mahai jolasa eta tailerra • *Juego de mesa y taller***
**Board game and workshop • *Jeu de société et atelier***

**www.bakearenmuseoa.org - www.museodelapaz.org - hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net**




**Salgai**
***A la venta***
**For sale**
***En vente***



*Nor da zuretzako bake erreferente bat?*
*¿Quién es para ti un referente de paz?*
Can you suggest another peace maker?
*Pouvez-vous nous suggerir un autre referent de paix?*

#peacemaker #bakeraikilea